


Handwritten number: 110

CANTICA

IZPIRITUALAC.



Cantica hauc, correituric eta cembcit oraino eçagutuac ez cirenez emendaturic, berriz arguitarat emaiten dituen aphezac abisu daroe Escualdunei, heldu den urthean, (1856^{an}) imprima-aracico dituela bertze hainitz cantica, berriki moldatuac, asco suyeten, eta beregainki Biryina Sainduaren gainean. Esperantza du batac, nola bertzeac beguitarte onez escutan hartuco dituztela gure herritar maiteec.



BAYONAN,

ANDRE LAMAIGNÈRE, ALHARGUNAREN IMPRIMERIAN,

PONT-MAYUCO CARRICAN, 39. NUMEROAN.

N-500009360

2RV
3364

CANTICA


IZPIRITUALAG,

Lehen eçagutuei hainitzac iratchitkiac, artha eta ohartzapenekin cantatuz, Yaincoa eta gure salbamendua ganaco orhoitzapenean haguitz lagunduco gaituztenac.


Psalmite Domino..... quoniam rex omnis terræ Deus, psalmite sapienter.

Canta çaque Yaunaren ohoretan... bainan ceren den mundu guciaren erreguea, canta-çaque debocionerekin.

LEHEN PARTEA.



CANTICA ÇAHARRAC.



SALTZEN DA BAYONAN,

DESPLAN, Liburu eta Paper saltzailearen baithan,

PORT-NAUCO ARKHAZPIETAN, 5 NUMEROAN.

—
1855.

GENERAL INSTRUCTIONS

TO THE MANAGERS OF THE

THESE INSTRUCTIONS ARE TO BE OBSERVED BY THE MANAGERS OF THE COMPANIES IN THE SEVERAL PORTS OF THE EAST INDIES COMPANY, IN ORDER TO SECURE THE SAFETY AND CONVENIENCE OF THE SHIPS AND PASSENGERS, AND TO PROMOTE THE INTERESTS OF THE COMPANY.


1. The Managers are to see that the Ships are properly equipped with all the necessary Stores, and that the Crew is well chosen and instructed in their Duty.

2. The Managers are to see that the Ships are properly managed, and that the Cargo is safely stowed and secured.

3. The Managers are to see that the Passengers are well treated, and that their Comfort is promoted.

4. The Managers are to see that the Accounts are properly kept, and that the Company's Interests are promoted.


ABISUA.




IMPRIMATU içan dire, noizetic noizera, escuarazco Canticac : halaric ere urrunda baitciren erraiteco gucien guericean. Hetaric cembeit bethi hux berekin aguertzen ciren ; bertze cembeit arrimuric gabe eta moldegaizki ciren emanac. Ahal dire oraino bacotch batzu hobeki diotenac çor bere sortzea chede laudagarri bati, ecen ez berxuac edocein gosturekin moldatzeco donuari, edo artha çorrotzari.

Orai arguitarat emaiten diren Canticac, hala çahar erreberituac, nola egundaino imprimatu gabeac, ez dire (ikhusia da) perfeccionne osoan. Lan aski gaitza eta idorra çaio hautaz ocupaturic heldu denari bertzeren obren chuchentzea. Hain nahico ere çuen berac, berri berritan, guciac moldatu ; ordean, edireten tu, Cantica çaharren artean, cembeit bakhar hainitz ongui emanac, eta hekien moldatzailei ohore eguiten diotenac ; baçaio oraino hetaric bertze cembeit, bederen erdi ongui dohazkela, aphurbat correituric. Damuric beraz utzico cirela Cantica çahar guehienac balxatu gabe berriekin. Diren guciac canta beitez alegueraki gure herrietan. Bedi gure Yainco handia laudatua, bihotzez eta errepicaz, bazter gucietan.


ARISTO



ene bihotz dolorez çaurthuaz bethico eguiten daut-
çudan sacrificio osoa. Hitz emaiten darotçut,
Yauna, bicitze berri batez erreparatuco ditudala
ene bici pasatuco falta guciac ; eta orai artean
ofenxatu çaitudan beçala, hemendic aitzina, çure
graciarekin batean, çu bakharric maitatuco, ohora-
tucoco eta cerbitzatuco çaitudala. Ez deçaçula, othoi,
permeti behinere ahantz, edo bistatic gal deçadan
egun, guçonen eta Aingueruen presentzian, çure
aldareen oinetan, emaiten darotçudan aguintza
handia. Halabiz.



AMANDA ONORABLEA.



MAYESTATE adoragarria , ceruaren eta lurraren Creatzaile eta Yabe soberanoa, guiçonon eta Aingueruen Erregue eta Monarca guciz puchanta ; huna non naicen criminel bat beçala, çure contra eguiditudan nombre gabeco bekhatuez misericordia humilki galdeguiteco, eta bereciki amodiozco Sacramendu huntan eguin dauzkitçudan afruntu handiez, damuric minenarekin barkhamendu escatzeco.

Bai, ene Yauna eta Yaincoa, bihotza dut urrikiric minenaz çaurthua ; ceren çu, ô ontasun soberanoa , hain anxicabeki ahantzi, eta hain ingrarki ofenxatu çaitudan. Ahantzçatçu, ô Salbatzaile amulxua, ene crima eta hoben guciac ; orhoit çaite, othoi, çure misericordia handiaz eta çure tormenta guciez. Ez naçacula puni çure coleran ene bekhatuen arabera ; bainan trata naçaçu çure samurtasun mugarrigabearen arabera : urrical bekiçu, Yesus dibinoa, çure odolpreciatuaren gostuz erosi duçun ene arima.

Humilki aithortzen dut, ô Yainco handia, ez naitela gai, ene baitharic, eguin dauzkitçudan ofenxa handien erreparatzeco ; ordean çure Seme, Olibetaco baratzean humiliatuaren amoreac gatic , barkha dietzadatçu ene hoben guciac ; ez deçaçula arbuia

CANTICA IZPIRITUALAC.

I CANTICA.

Izpiritu Sainduaren laguntzac galdetzeco.

ÇATO, Izpiritua,
Creatzaile Saindua ;
Bisita çatçu hotzac,
Othoi, gure bihotzac.

Bethe çatçu graziez,
Cerutic egorriez,
Gure adimenduac
Ceronec formatuac.

Conxolatzaille ona
Icendatzen çarena,
Dohain baliosena
Yaun cerucoarena.

Ithurburu bicia,
Amodio garbia,
Caritate kharxua,
Gantzucari saindua.

Çuc çazpi suerteac
Emaiten berthuteac ;
Çu çare erhi sendoa
Yaunaren escucoa.

Noizbait çure arguiac
Inoranten mihiac
Bethe cituen hitzez,
Guciz miragarriez.

Detzan argui gureac,
Arin gogo tristeac ;
Bai çure su borthitzac
Susta gure bihotzac.

Gure gorphutzecoac
Detzan indar flacoac
Borthitz çure graciaç,
Bethi sendagarriac.

Egorraçu gurea
Urrun exai dorphea,
Emaguçu bakea,
Dohain guciz maitea.

Gutaric batbedera
Guida çaçu onera ;
Çurekin ezdeçagun,
Othoi, gaitzic eçagun.

Sinhex deçagun Aita,
Seme guciz puchanta,
Eta Izpiritua
Biez produitua.

Çure arguiz deçagun,
Othoi, ongui eçagun
Yainco eguiazcoa
Bethi laudatzecoa

Bethi laudorioac
Tuen Aita Yaincoac,
Seme, hilic phiztuac,
Izpiritu sainduac.

O! Yauna, fidelenac
Çuc arguitu barneac
Tutçu, lehen, dohainez
Izpirituarenez.

Hartaz beraz gu ere
Gaitçatçu bethiere
Argui çure eguiez,
Bai conxola graciaez.

Egor açu saindua,
Othoi, Izpiritua,
Eta mundu gucia
Eguinen da berria.

II CANTICA.

Laguntza beren galdea. Aire berean.

ÇATO, Izpiritua,
Çato gu laguntzera ;
Othoi, çato, yauxçaite
Gure bihotzetara.

Yauna, bethe gaitçatçu
Egun çure dohainez,
Eta gaitçatçu susta
Çure khar bicienez.

Conxolatzaile goço,
Descanxu emailea,
Çu çaitugu penetan
Gure laguntzailea.

Çu çare, bethidanic,
Amodioa bera,
Osoki ekharria
Gu gucien aldera.

O! cembat flakecia
Datzan gure bærnetan !
Bici gare, ondicoz,
Bekhatuzco gathetan.

Egor dieçaguçu
Çure arraioetic,
Eta gare ilkhico
Gure ilhumbetic.

Cembat ere baigare
Itzuliac gaizkira,
Çure graciae gaitu
Erakhartzen onguira.

Urrun çaçu guganic
Gure exai gaichtoa,
Bethi gure arimen
Galtzerat hari dena.

Bai, Yauna, urrun çaçu
Sathan, exai dorphea ;
Emaguçu bakea,
Ontasun hain maitea.

Aitarekin Semea
Dela bethi laudatu,
Izpiritu Saindua
Biekin ohoratu.

Içan beite hirurac
Gutaz eçagutuac,

Trinitate sainduan
Guciez maitatuac.

III CANTICA.

Yaincoaren legue saindua. Hainitz aireren gainean.

CANTA arin mundutarrac
Sunxi beitez betbetan ;
Sentimendu caltecorrac
Hil beitez bihotzetan.
Abia gaiten laudatzen
Erreguen Erreguea,
Balxan, lehiaz, cantatzen
Eman duen leguea.

Ala bai da, Yaun goicoa,
Çure legue saindua
Guciz nahicarazcoa,
Goço eta yustua!
Orotarat tu hedatzen
Placeric bicienac ;
Descanxuan tu eçartzen
Penatuac direnac.

O! çuec, arguileriac
Ixutzen çaituztenac,
Munducó esdeuskeriac
Bilhatzen tutçuenac ;
Ontasunac, ohoreac
Ditutçue preçatzen,
Nic batzu, nola bertzeac
Bocic tut arbuiatzen.

Bake maite bat darraio
Yaunaren legueari ;
Cer escasten othe çaió
Hartaz dacusanari ?
Izpirituac libratzen
Ditu ilhumbetarie,
Bihotzac ere sendatzen
Çauri guciataric.

Çure legueac, Yaun ona,
Behar gaitu salbatu ;
Ez da eeren çoriona
Bertze nihon bilhatu.
Guidariric çuhurrena
Badakit hura dela ;
Hari yarraikia dena
Ez daite errebela.

Legue harren uztarria
Errech da yasaitea.
Ez, ez da nekhagarria
Harren carga maitea,
Yartzen naiz harren azpian,
Hartaz naiz guidaturen ;
Hura dut bici gucian
Bakharric maitaturen.

IV CANTICA.

MUNDUAREN ARBUIOAZ.

Aire hunen gainean : *Pour passer doucement la vie.*

Hau da gure ixumendua!
Cerc gaitu bada çorätzen?
Ahantziric salbamendua,
Mundua dugu maitatzen.

Lurreco cargu, ohoreac
Dire ephe gutitaco;
Hango içaite, fagoreac
Çaizkit khearen pareco.

Arrosa, arantze gaberik
Ez ahal da nihon sorthu;
Ez eta munduco placerik
Khirexic gabe guerthatu.

Ontasun galcor batzuenzat
Ez gaitu Yaunac creatu;
Sainduki bici direnentzat
Bertzeric du aldaratu.

Cerua da dohaxutasun
Yustuari aguindua.
Oi! cer çorion, cer ontasun
Içaitea salbatua!

Bethi libro doloretaric
Daude Ceruan yustuac:
Bethi bazter gucietaric
Loriaz inguratuac.

Nonbeit ongui maitagarria
Bide çare, ô Cerua!
Çu çare, sainduen herria,
Placeren ithurburua.

O! egoitza çorionezco,
Guciz goço, berecia;
Ala çure ganat heltzeco
Ongui baidut guticia!

V CANTICA.

MUNDUCO GAUCEN ESDEUSTASUNAZ.

Aire huntan : *Sombres forêts; etc.*; edo huntan : *Itzul
hadi, itzul bekhatorea.*

Mundu çoro, tromperiaz betheá,
Iduki nauc ondicoz gathetan ;
Lausengari, enganacor tristea,
Atzeman nauc, eta cembatetan !

Lore pean arantzeac gorderic,
Sar-araci nauc hire saretan ;
Hire baithan sobera fidaturic,
Errori nauc asco bekhatutan.

Non cen bada neure adimendua,
Bicitzean placer galcorretan ?
Ikhusten dut ene çoramendua,
Eta nago auhen minenetan.

Ixumendu ecin ahantzizcoa !
Salbatzecotz içan naiz creatu ;
Eguiteco gucien gainecoa
Nola bada dut trebes largatu ?

Ez balitz placheric baicen enetzat,
Tronuraino banintz altchatua,
Hauc guciac ez nituzke deusentzat.
Egun batez banintz damnatua.

Ceru, lurren, gucien Erreguea
Salbatzeco behar dut bilhatu ;
Guidaritzat hartu harren leguea,
Bekhatua urrikiz borratu.

Gostaia naiz çure odol garbia,
Huxtu duçu, nahiz ni salbatu ;
Çor darotçut, Yauna, bihotz igucia ;
Nahi çaitut nic ere maitatu.

VI CANTICA.

Inocentzian denaren çoriona.

ALA baida dohaxua
Inocentzian dena,
Nihoiz bere descaxua
Ecin gal deçakena !
Munduac bere placerac
Alferric tu laudatzen ;
Barneco bake hare berac
Guciac tu garhaitzen.

Yaunari bihotz garbiac
Choil çaiçco agradatzen :
Haren behatze eztiac
Tuzte bere ganatzen.
Ala bai ditu maitatzen
Notha gabe direnac !
Cerura ditu guidatzen
Hartaz dacusatenac.

Yauna bedi laudatua
Dembora gucietan,
Beregainki maitatua
Egun ederrenetan.
Çuec beraz, ô gazteac,
Emotçue Yaunari
Hastapeneco urtheac,
Yarraikiz ceruari.

Çuen adin samur hori
Laster da iragana ;
Lore flaco bat diruri
Betan sunxitzen dena :
Ikhusico dute sortzen
Eta, guehienean,
Arras historic erortzen
Egun hartan berean.

Çuec, hor çabiltzatenac
Munduari yosiac,
Bekhatuari emanac,
Iduri nahasiac ;
Nihon placer funxeçcoric
Ez duçue causitzen,
Nihon ez baida bakeric
Inocentzian baicen.

Cer du bada bekhatuac,
Cer du maitagarriric ?
Haren gathetan sarthuac
Non duke soseguric ?
Helas ! bici da lurrean
Barneco tormentetan,
Eta da, hiltzen denean,
Erretzen su lametan.

Maria, Biryina saindu,
Bethi garbi çarena;
Munduan duçu higuindu
Bekhaturic chumeena :

Çuc, othoi, gaitzatçu lagun
Higuinzeco gaizkia ;
Eguiču maita deçagun
Yainco maitagarria.

VII CANTICA.

Bathaioco graciaren gainean.

Ez dakit cergatic,
Beldurrac harturic,
Cerc nauen hula herxtu ;
Yauna dut nerekin
Bere graciekin,
Eta nago, eta nago, eta nago
muthu.

Mendiec, içarrec,
Eta ixas bazterrec
Ez dute ichiltzeric ;
Haren ohoratzen,
Lehiaz laudatzen,
Hari dire, hari dire, hari dire
bocic.

Nic, guciataric,
Eta guehienic
Dudalaric cer mintza,
Haren laudatzeco
Eta ohoratzeco
Betan dohat, betan dohat,
betan dohat hitza.

Haren fagoreec,
Dohain bereciec
Ez dute mugarriric :

Heien preçatzeco,
Aski eçagutzeco
Ez da bera, ez da bera, ez da
bera baicic.

Cembat gaitzetaric
Eta irriscutaric
Ez nau ni harc beiratu?
Miletan ninteken,
Biciric banuen
Yakin gabe, yakin gabe, ya-
kin gabe, galdu.

Sorthu beçain sarri,
Içan nau urricari
Eta nau fagoratu.
Harc nau, ordu hartan,
Bere besoetan
Bathaioan, bathaioan, ba-
thaioan hartu.

Içarrac ceruan,
Bere ederrenean,
Ahalcatuco ciren
Niri behatzeaz,
Eta ikhuzteaz
Cein ederra, cein ederra,

cein ederra nintzen.
Yesusen biciaz,
Haren yusticiaz
Nuen içarniatzen :
Ceruez gorago,
Ainguerutaraino
Ikhusia, ikhusia, ikhusia nintzen.

Hambat bertzetaric
Balxan sorthutaric
Yaunac ni nau bereci!
Ene creatzea,
Ene erostea
Ez citzaion, ez citzaion, ez
citzaion aski.

Patutan ordutic
Enekin sarthuric,
Citzaitan obligatu;

Guerocotz graziez
Bere arraiciez,
Çautan eman, çautan eman,
çautan eman escu.

Bainan adinerat
Eta eçagutzarat
Ethorri beçain sarri,
Nic, ene aguintzac,
Ene hitz emanac,
Darozkitçut, darozkitçut, da-
rozkitçut hauxi.

Bai eiki, ene Yauna,
Nic bekhøki hura
Haurretic içatu dut;
Ikhusten nauçula,
Oihuz çauzkidala,
Nic çu utzi, nic çu utzi, nic
çu utzi çaitut.

VIII CANTICA.

Yaincoa ganat itzultzen da bekhatorea.

ÇURE gana, Yauna,
Ene yabe ona,
Itzultzen naiz bihotzez;
Çu gabe, lurrean,
Bethi gaizkipean,
Ibili naiz, ibili naiz, ibili naiz
trebes.

Iragan bicia
Bekhatuz gucia
Betha ikhusten dut;
Hetaz ixuturic,

Bidetic ilkhiric,
Nic çu galdu, nic çu galdu,
nic çu galdu çaitut.

Gaichtoki munduac
Gueçurrez hantuac
Itchiki nau yosiric;
Harren sinhexteaz,
Hari obeditzeaz,
Ez dut segur, ez dut segur ez
dut segur onic.

Elhurraren pare,
Nairraioric gabe
Nuellaric arima;
Lepra hux eguinic,
Ezcaldaz betheric,
Ez dut norat, ez dut norat, ez
dut norat beha.

Ah! mundu tristea,
Hau duc ondorea
Emaiten dautacana!
Hire golardoa,
Bethi orhoitzecoa,
Seculaco, seculaco, seculaco
pena.

Axeguin banoac,
Ohore falxoac,
Çohazte ene ganic;
Non ez dudan Yauna,
Ene ontasuna,
Ez çarete, ez çarete, ez çarete
deusic.

Ene beguietan,
Oren gucietan,
Hemen çaituztet bethi;
Ene enganatzea,
Nitaz nausitzea
Ez çaitçue, ez çaitçue, ez çaitçue
aski.

Ene hiragarri,
Eta akhabagarri,
Ez duçue pausuric
Non ni ez nauçuen,

Bethicotz ikhusten
Ifernuan, ifernuan, ifernuan
hilic.

Ah! dohacabeac,
Ene galtzaileac,
Orhoituco nauc ongui
Çuen escuetan,
Çuen gatheetan
Egoiteaz, egoiteaz, egoiteaz
finki.

Nic orai artean,
Ene bicitzean,
Cer bidegabe ez dut;
Arguiac, graciaç,
Demborac, guciac
Betan galdu, betan galdu, be-
tan galdu ditut.

Deusere hetaric,
Obra onetaric
Loriacotz ez duket;
Othoitzac, amoinac,
Iragan onguiac
Bethi alfer, bethi alfer, bethi
alfer tuzket.

Yaunac non ez nauen
Urricari içaiten,
Agueri da garbiki
Cein dohacabea
Ene bicitzea
Içanen den, içanen den, içanen
den bethi.

IX CANTICA.

Yaincoaren hamar manamenduac.

Asco aireren gainean.

I. Yainco bat adora çaçü, etc.

YAINCO yauna behar duçu bakharric adoratu,
Gauça gucien gainetic hura bera maitatu;
Hura da gure Yabea, gure Creatzailea,
Salbatzeco behar diren graciën emailea.

II. Yuramenturic ez duçu eguinen, etc.

Yaunaren icen saindua bedi ohoratua,
Errespetu handirekin ikharan aiphatua;
Borthizki tu gastigatzen saindutasuna denac
Arinki yuramentuac eguiten dituztenac.

III. Igandeac beguira çatçu, etc.

Igandeac behar dire arthoski beguiratu;
Beretzat ditu Yaincoac bethitic aldaratu;
Egun hec iragan beitez haren lorificatzen,
Sainduki gure bihotzac haren ganat altchatzen.

IV. Aila, ama ohora çatçu, etc.

Yaincoaren nahia da burhasoac detzagun
Ekhar errespeturekin, behar ordutan lagun.
Oi! cer bihotz gogortasun hec ez ohoratzea,
Hambat çor diotegunac ez cinez maiçatzea!

V. Nihor obraz hilen ez duçu, etc.

Ez duçun nihoiz herraric lagunaren alderat;
Bethi çaren ekharria exaien onhexterat.
Gaizki guciae, cin cinez, behar tutçu barkhatu;
Elkhar, haurride beçala, behar dugu maitatu.

VI. Paillardia eguinen ez duçu, etc.

Axeguin lohi guciac urrun çatçu çu ganic ;
Maita çaçu modestia bihotzez orai danic.
Oi! cembat arima gaicho diren bethicotz galtzen,
Berthute maitagarri hau ceren duten colpatzen.

VII. Bertzerena ebaxico ez duçu, etc.

Lagunaren ontasunaz ez çare yabeluco ;
Nori berea dioçu çucenki bihurtuco ;
Bertzela, exi eçaçu arima salbatzeaz,
Mundu huntaric lekhora, ceruaz goçatzeaz.

VIII. Lekhucotasunic ez duçu eguinen falxoki.

Behar çare lehiatu eguiaz mintzatzera,
Lekhucotasun falxotan nihoiz ez erortzera ;
Eguia bera den Yaunac horrela du aditzen;
Egun batez, yakinen du gueçurraren punitzen.

IX. Bertzeren esposic, etc.

Amodio contracoric ez duçun bihotzean ;
Ez duçu behar maitatu baicic Yainco leguean ;
Ohora eta beguira çaçu garbitasuna,
Berthute bake goço bat emanen darotçuna.

X. Guticia içanen ez duçu, etc.

Ez çaiçço behar bekhaiztu bertzen ontasunari ;
Ez ekhar inbidiaric lagunaren onari ;
Guti baduçu, gutiaz çare contentaturen,
Eta diotçu Yaunari eskerrac bihurturen.

X CANTICA.

Elicaren manamenduac.

I. Meça saindua entzun çaçu, etc.

IGANDETAN hurbil çaite meçaren entzutera,
Sacramendu handi hartan Yesus adoratzera;
Sainduen bestac orobat tutçu beguiratuco;
Heien exemplu ederrez çare progotchatuco.

II. Bekhatuac cofesa çatçu, etc.

Urthean bederen behin çare cofesatuco,
Çure bekhatu guciac ditutçu aithortuco.
Oi ! ez gueldi behin hartan; ithurri sacratura
Çohaci guehiagotan, bihotza garbitzera.

III. Bazcoz bederen gorphutz saindua, etc.

Amodio kharxu batez çarelaric bethea,
Errecibituren duçu çure Yesus maitea;
Bederen urthean behin, Bazcoco egunetan,
Duçu comuniatuco çure çorionetan.

IV. Gartha, biyiliac, etc.

Eguinen tutçu barurac gartha, biyilietan,
Orobat gariçumaco egun seinalatutan.
Behar tutçu mundu huntan bekhatuac borratu;
Penitentziaren bidez behar çare salbatu.

V. Ortzilarean yanen ez duçu, etc.

Ez da yanen haraguiric edocein egunetan,
Hala nola, ortzilare eta larumbatetan.
Premia gabe manu hau hauxteco ausartzia
Da Yaunaren beguietan gaizki punigarria.

XI CANTICA.

Yaincoaren eta lagunaren alderaco amodioa.

YAUNA, eguin çare guiçon
Amodioac garhaituric;
Eta guc mereei gaberie,
Bethi çare guretzat on.
Ene bihotza da bozten
Ceren ongui gaitutçun lehenie
Maitatu, Cerutic lurrera yauxiric.
Orai nic, ordainez, cinez çaitut maitatzen.

Ha! cer ona! cer placera
Çuri yarraikitzea bethi!
Çure gatic nahi dut bici;
Çu çare, çu ene desira.
Nore ez çaitu behar maitatu?
Bihotz onez maite çaituenac
Ya goçatzen ditu eguiazco onac.
Yauna, çu maitatuz behar gare salbatu.

Çure bethi maitatzean
Dago sainduen çoriona;
Placeretan den handiena
Dago çu cerbitzatzean.
Amodio sacratu batez
Eguin nahi dautçut gorthea.
Cer daite ceruan dohaxu içaitea?
Deus ere, baicic çu maitatzea cinez.

Bai, ene ahal guciac,
Yauna, darozkitçut escaintzen.
Çure ganat nau erakhartzen
Ene amodio handiac.
Gaitutçunaz gueroz manatzen
Maitatzerat proximo laguna,

Ez deçaqueke ongui baieie mana;
Orai beretic dut bihotz onez maitatzen.

Anaia dudan beçala,
Arraiki diot behatuco;
Bethi diot eraeuxico
Eguiaz maite dudala.
Bainan, nola gure ahaletan
Ez bai gare flakecia baicie;
Çu gabe ez baidugu deusentzat indarric :
Khondaturen dugu, Yauna, çure aguintzetan.

XII CANTICA.

Lau azken finen gainean.

An! guiçona, bici haiz ixutua;
Urruntzen haiz Yaunaren leguetic;
Azken finac, uztecotz bekhatua,
Galdu behar ez dituc gogotic.

Hil behar haiz; cer due seguragoric?
Hori dioc çor herioari;
Ethorrigo çaic, hic ustecaberie;
Emoc hori hire buruari.

Içanen haiz, hil eta, yuiatua
Yainco Yaunaz; ordean yustuki.
Cer çorigaitz, ez badue bekhatua,
Higuinduric, largatu osoki!

Berehala yuie mendecariac
Çabalduren die suzeo lecea :
Han beharco tuc tormenta guciac
Bethi yasan, ô çorthe dorpheal

Hala hala, sainduki bicitzerat,
Yaun goicoac hau saristatueo;

Helduren haiz haren escuin alderat :
Ceruaz haiz bethi goçatuco.

Hil, yuiatu, galdu edo salbatu
Behareo haiz, eguia tristea!
Hire ona nahi baduc aurkhitu,
Bilha eçac hire Yaun maitea.

Bere besoac darozkie çabaltzen :
Aita bat duc, nore erran cein ona?
Has hadi bihotzez haren maitatzen ;
Hori duc harc galdetzen duena.

XIII CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

Aire huntan : *Quand les trois Mages reparurent dans
leur pays. Edo : Quoi ! ma voisine, etc.*

Guiçona, non duc çuhurtzia ?
Cer ! ez dakic
Ez dela deusere bicia
Khe bat baicic ?
Higuintçac bihotzez mundua
Örai danic ;
Herioa duc hurbildua
Hire ganic.
Mundutar, placer çoratutan
Hondatua,
Gauça bat bedi hire baithan
Fincatua ;
Orhoit hadi hil behar dela
Azkenean ;
Bihar beretic haitekela
Lur barnean.

Aberaxa, hire diruac
Hauc ixutzen,
Aguintza falxoez munduac
Hau çoratzen.
Ah ! has hadi enganioaz
Ahaltcatzen,
Bai eta funxki herioaz
Beldur hartzen.
Gazte çoro, ocupatua
Aphainduraz,
Ocupa çac izpiritua
Sepulturaz :
Herioa banitateaz
Duc trufatzen ;
Urguilusen atzimateaz
Duc dostatzen.

Tratulari, intres gosea,
 Deusec ere
 Mundu huntan ecin ase
 Behinere,
 Sarri phutzu bac çaic emanen
 Egoitzatzat;
 Bi braça lur ditue içanen
 Ontasuntzat.
 Izaboraria, alferretan
 Haiz nekhatzen;
 Maiz herioa duc bet betan
 Gu ganatzen.
 Hacilhan eguiteco lanac
 Tuc hiretzat,
 Eta fruitu heldu direnac
 Primuentzat.

Marinel, hambat hersturetan
 Habilhana,
 Laster haiteke uhinetan
 Atzemana :
 Ur pean edo leihorrean
 Haiz galduco;
 Bicia çaic, muga denean,
 Escastuco.
 Bat ez çajo herioari
 Itzurico;
 Çorrozki dio bakhotchari
 Yaçarrico;
 Badaramatza Erregueac
 Tronutaric,
 Hain errechki nola pobreac
 Çokhotaric.

XIV CANTICA.

GAUÇA BERAZ.

Aire hunen gainean : *La Muette des Marais*. Edo
Hainitz bertze aireren gainean.

CER dire gure egunac? Cer da gure bicia?
 Itzalaren pare dire : non dugu çuhurtzia
 Axeguin iragancorrei bihotza largatzeaz?
 Akhabo da laster gutaz ; orhoit gaiten hiltzeaz.

Hobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutic ;
 Herioac, gure bortcha, garamatza mundutic ;
 Baratzetaco löreac histen diren beçala,
 Hola da gure bicia sunxiten berehala.

Oi ! ez dugu ceren erran gazte, sendo garela,
 Herioa gure ganic oraino urrun dela.
 Sarri lur barnean daite bici uste duena ;
 Nore daki noiz içanen den gure azken orena ?

Herioac nihore ez du munduan urricari ;
Bakhotchari nahi dio, bere mugan, yaçarri ;
Chumeac eta handiac ditu bere-ganatzen,
Guciac, arte laburrez, herrauxetan eçartzen.

Cerentzat guintuzke beraz munduco fagoreac ?
Laster utzi behar diren ontasun, ohoreac ?
Arbuia deçagun lurra, eta bilha cerua ;
Han du bakharric aurkhitzen bihotzac desoanxua.

Sainduki hil nahi denac, loriarat heltzeco,
Utzi behar du gaizkia, onguiari lothzeco ;
Hori bera du manatzen Yaun onaren legueac,
Lurreco printze, monarca gucien Erregueac.

Yaincotiarrac ez ditu hil beldurrac loxatzen ;
Badakite, hil orduco, direla ceruratzen ;
Cembat ere herioac beguia bai du larri,
Ongui bici direnentzat ez da ikharagarri.

Cer çorte erdiragarri bekhatuan hiltzea !
Cer çorigaitz ! cer calte min arimaren galtzea !
Beguiria gaitzatçu, Yauna, heriotze gaichtotic,
Eternitate gucian erretzen egoitetic.

Yainco adoragarria, Aitaric hoberena,
Entzun çaçu çure Seme, gure gatic hil dena ;
Gracia eske dagotçu guretzat gurutzean :
Arren fagora gaitzatçu gure heriotzean.

Ondicoz ! mereci tugu gastigu garratzenac.
Othoi, ahantz bekizkitçu, Yauna, gure hobenac.
Hel çakizkigu, Biryina, gure behar ordutan,
Guciz, o ! Ama maitea, hiltzeco orenetan.



XV CANTICA.

HERIOTZEAREN ORHOITZAPENAZ.

Çuen heriotzeaz funxki orhoitzerat,
Lehia cintezkete ongui bicitzerat;
Muga lazgarri hura datza burbildua;
Halaric ez duçue higuintzen mundua.

Placerac, ontasunac tutçue maitatzen,
Çuen gogo gucia hetan da baratzen;
Hec utzirie bertzeentzat, gutien ustean,
Arkhituren çarete lurraren barnean.

Ethorri beçain sarri hiltzeco orena,
Oren sainduac berac lazten dituena,
Yuie ikharagarri, ordean yustuac
Nahico tu punitu çuen bekhatuac.

Ez da ceren orduan laguntza bilhatu,
Hauço, ahaidetarat oihuz abiatu;
Ez du nihorc içanen urricalmenduric,
Ez çaitçue emanen conxolamenduric.

Exitu beharco da ceruco graciaez,
Baita mundu huntaco fagore guciez;
Çuen barkhamendua, nigar marrasketan,
Galdeguinen duçue, bainan alferretan.

Çuen obra guciac dire aguertuco,
Balentza çucenetan dire phisatuco:
Onguiac içanen du saritzat cerua,
Gaizkiac gastigutzat Ifernuco sua.

Batbedera, balimba, nahi da salbatu,
Saindu, Saindaci beçala loriaz goçatu :
Iteien çorionerat heltzeco bidea
Da bakharric Yaun ona cinez maitatzea.

Deçagun beraz maita sainduen Saindua,
Eta higuin bihotzez bethicotz mundua.
Oi! ez bekigu ahantz hil behar garela,
Ceruco erresuma yustuentzat dela.

XVI CANTICA.

Gurutzearen bistan bekhatoearen sentimenduac.

O Yesus! gurutzera
Ni gatic igan çarena,
Ene gastigatzera
Maiz behartzen çaitudana,
Orai, çure aldera
Bihurtzen naiz, Yainco ona;
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat eman duçula.

Çure amodioac
Ez banau, Yauna, salbatzen,
Ene bihotz gaichtoac
Sutara nau condenatzen :
Çure yuiamenduac
Borthitzki nau ikharatzen.
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat etc.

Behar nuen bicia!
Eman Creatzaileari ;
Eman diot gucia
Gaichtoki creaturari.

Ixumendu handia !
Ifernua dut mereci.
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat, etc.

Deithu nauçu eztiki
Çure gracia sainduaz ;
Egotu naiz laçoki,
Enganatua munduaz ;
Orai, yoanen naiz bethi
Onguian aitzinatuz.
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat, etc.

Sobera tut maitatu
Munduco erhokeriac ;
Berant tut eçagutu
Haren traidorekeriac.
Nahi naiz conbertitu.
Indatçu çure gracia.
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat, etc.

Hambat duçu pairatu
Ene gatic gurutzean!
Nola tuzket maitatu
Axeguinac mundu pean.

Nahi naiz gambiatu;
Urriki dut bihotzean.
Ah! orhoit çaito odola
Enetzat eman duçula.

XVII CANTICA.

Nola behar gaizcon Yesusi yarraiki.

Oi! cein diren dohaxuac
Bekhatutic urrunduac,
Berthutez berreguinduac
Bici direnac!
Salbatzea gatic,
Jesus bihotzetic,
Gucien gainetic,
Maite dutenac.

Oi! non da caritatea,
Non eguiazco fedea,
Khar fidantziaz bethea?
Urrun gu ganic.
Fedez bicitzen,
Onguian fincatzen
Gare abiatzen,
Yauna, gaur danic.

Cer erran garbitasunaz,
Hambat maitatu duçunaz,
Hain guti maitatzen denaz
Dembora hautan?
Berthute maitea,
Biryinen lorea!
Biz bethi gurea
Mendeen mendetan.

Non causi humiltasuna,
Non aldiz eztitasuna
Eta amulxutasuna?
Bihotz gutitan.
Berthute goçoac,
Dohain cerucoac,
Çareten gureac
Urhax orotan.

Cer du arima kharxuac,
Bere Yaincoaz hartuac,
Munduaz desgustatuac,
Cer du eguiten?
Atzartasunari,
Othoitz husuari,
Mahain sainduari
Da yarraikitzen.

Cer da berriz maitatzeco,
Bereciki bilhatzeco,
Guciec besareatzeco?
Unionea.
Elkharri behatuz,
Gaizkia barkhatuz,
Exaiac maitatuz,
Dugun bakea.

O! Yesus, ezti çarena,
Escolarie çuhurrena
Emaiten darocuçuna,
Ikhas deçagun.
Gaizkitic urruntzen,
Çu ganat hurbiltzen,
Çuri yarraikitzen
Gaitzatçu lagun.

Oi! cein den çorte tristea
Munduari behatzea,
Hango placeren hartzea
Dut eçagutzen.
Bakharric çu, Yauna,
Ene çoriona
Galdetzen duçuna,
Çaitut maitatzen.

XVIII CANTICA.

CONTZIENTZIAREN EXAMINA.

Aire hunen gainean : *Pour passer doucement la vie;*
Edo huntan : *Réveillez-vous, etc.*

Humilki çaitut adoratzen,
Ahuspez çure oinetan ;
Yauna, çuc nauçu fagoratzen
Behar ordu gucietan.

Orai, eguidaçu gracia
Bihotzaren çundatzeco ;
Han den phoçoin gaichto gucia
Lehen bai lehen khentzeco.

Ikhus detzadan ene faltac
Othoizten çaitut, Yaincoa ;
Eta heien ikhuste clarac
Trista bieçat gogoa.

Hurbildic examinatzerat
Eguin ditudan gaizkiac,
Milaca çaizkit aitzinerat
Heldu neure flakeciac.

Gogoz, obraz, orobat hitzez
Hauxi tut çure manuae ;
Itchurazco bere placerez
Enganatu nau munduac.

Oi ! urrical nakiçu, Yauna,
Higuintzen dut bekhatua,
Bakharric ceren çaren ona,
Ez ceren den Ifernua.

Leialki dut beguiratuco
Orotan çure leguea ;
Ez naiz handic aldaratuco ;
Hori da neure chedea.

Cembat diren urricaltzeco
Gaizkian oi ! daudecenac !
Heientzat daude seculaco
Tormenta latzgarrienac.

Cer çuhurtzia orhoitzea
Ifernuco suzco kharrez !
Ceruaren merecitzea
Urrikiaren nigarrez !

XIX CANTICA.

BEKHATUAREN URRIKIAZ.

Aire hunen gainean : *J'ai péché dès mon enfance.*

Çure contra naiz altchatu,
Çeru lurren Nausia ;
Çure contra naiz harmatu ;
Hau da atrebentzia !
Oi ! nola, oi ! nola
Mundu huntan conxola ?

Galdut dut inocentzia,
Orhoitzeco caltea !
Harekin bake gucia ;
Hau da neure çorthea !
Oi ! nola, etc.

Bathaioac Yaincoari
Ninduen conxecratu ;

Bainan laster exaiari
Bekhatuac libratu.

Oi ! nola, etc.

Nintzeneco bathaiatu,
Oren hartan berean
Ah ! ochala banintz sarthu
Hil gogorra lur-pean !
Oi ! nola, etc.

Aldarearen oinetan
Eguin tudan botuac
Ene hobenez, miletan,
Dire osticatuac.

Oi ! nola, etc.

Cer ez duçu, çuc, enetzat
Eguin, Yesus maitea!
Noiz içanen naiz çuretzat
Eçagutzaz bethea?
Oi! nola, etc.

Tresor guciz berecia
Ez dut aski preçatu:
Yauna, dut çure gracia
Ondicoz! arbuiatu.
Oi! nola, etc.

Damuz, urrikiz çaurtua,
Heldu naiz çure gana:
Içan bedi borratua

Bicitze iragana.
Yaun ona, Yaun ona,
Ah! ez ni abandona.

Ene arima gaichoaz
Duçun urricalmendu:
Ene bicitze gaichtoaz
Oi! othoi, barkhamendu.
Yaun ona, etc.

Cin cinez naiz gambiatzen,
Bai, memento beretic:
Çuretzat naiz declaratzen
Bihotzaren erditic.
Yaun ona, etc.

XX CANTICA.

Yaincoac deithzen du bekhatorea bere gana.

ITZUL hadi, itzul, bekhatorea,
Yainco Yaunac deithzen hau arraiki;
Estima çac hitaz duen galdea,
Eta emoc bihotza osoki.

Bethiere, hire hux gucietan,
Eguin dauiat pietatez oihu;
Ene gana deithu haut hambatetan;
Bainan hago gogor eta muthu.

Cer da, errac, nic eguin ezdudanic
Hi gaizkitic guibelarazteco?
Hambat argui içan due ene ganic:
Hauc guciac, hi ceruratzeco.

Ceren gatic nauc bada ofensatzen?

Naski, guciz ona naicelacotz.

Hain gogorki cergatic nauc tratatzen?

Ez nauc maite, maite haudalacotz.

Bicitze hau ez duc amex bat baicie;

Hil behar haiz eta noiz ez dakie.

Ez daroat nic agundu gueroric,

Ez asteric, ez eta orenie.

Içanen haiz egun batez ceruan,

Edo dukec bethico çorthea

Tormentetan, supean, Ifernuan;

Eta ez duc gogoan hiltzea!

XXI CANTICA.

Bekhatorea itzultzen da Yaincoa gana.

HUNA, Yauna, ardi bat galtzen cena,

Ez bacindu içan urricari;

Çure ganat, o! ene Artzain ona,

Graciac du egun erakharri.

Mundu pean, ondicoz! nintzen galtzen,

Eta bici nintzen aleguera;

Bainan non da, oi! Yauna, çutan baicen

Eguiazco bihotzen placera?

Ikhusten tut ene erhokeriac;

Hainitz aldiz çaitut ofenxatu.

Barkha çatçu ene hoben guciac;

Urrikiaz nahi tut borratu.

Hirritatu dut maiz çure colera,

Çure contra alchatzen nintzela.

Nola atrebi çu ene Aita deithzera,

Erraitera çure umea naicela?

Helas! Yainco guciz ona çarena,
Berant çaitut, berant eçagutu;
Berant çaitut, gauça gucien Yauna,
Mundu huntan eguiaz maitatu.

Çure ganic ez penec, ez placerec
Ni ez naute nihoiz urrunduren;
Ez hiltzeco herstura handienec
Çu laudatzetic guibelaturen.

XXII CANTICA.

Bekhatorea nahi da conbertitu.

OTHE da deus necesario denic
Mundu huntan baicen salbatzea?
Ez ahal da halaco çorionic
Nola ceruetara heltzea.

Mintza çaitte, Yaun ona, hemen nago
Ekharria çure entzutera :
Çure nahiac tut complitu gogo;
Othoi, çato ene borthiztera.

Uzten ditut guciac çure gatic,
Ecin duket çu gabe placeric;
Amodioz çabiltza sustaturic
Ene bilha, cerutic yauxiric.

Urrun beraz ene ganic mundua,
Ez, ez natzaic nihoiz yarraikico;
Eguin diat orai ene hautua,
Yainco Yauna bethi maitatzeco.

Gurutzeac, aithortzen dut, tudala
Ene faltaz orai merecitzen;
Bainan guero badakit dituela
Penatuae Yaunac khorroatzen.

Ikhusten dut cerua çabaldua ;
Han behar naiz, egun batez, sarthu.
Largatzen dut bihotz onez mundua;
Baitezpada nahi naiz salbatu.

Erre bekit bihotza çure suaz ;
Ah ! indaçu çure sokhorria ;
Arnegatzen dut, Yaun ona, munduaz,
Içaiteco ceruco loria.

XXIII CANTICA.

BEKHATOREA CONBERTITZEN DA.

ALA ni bainaiz dohacabea
Yaincoaren ofenxatzeaz ;
Sathan guidari hartzeaz,
Ene çorthearen tristea !
Sathan guidari hartzeaz !
Guisa hortan cerua galtzeaz !

Ez dut ez galdu choiki cerua,
Eta Ifernua merechitu ;
Neure Yaincoa dut galdu,
Neure salbatzaile amulxua.
Neure Yaincoa dut galdu,
Haren contra naicenean altchatu.

Orai dut, orai, eçagutzen
Ene gaizkien malecia ;
O ! Yainco maitagarria,
Guciac orai tut higuintzen ;
O ! Yainco maitagarria,
Bihotzetic indaçu urrikia.

Orai, Yauna, norc emanen dauzco
Ene adimenduari indarrac,
Ene beguier nigarrac,
Ene bihotzari khar asco,
Ene beguier nigarrac ?
Hor litezke, hor, ene placerac.

Cer duçu niganic igurikitzen ?
Cer guelditzen çaut eguiteco ?
Ekharria naiz aurkhitzen
Cer nahi den pairatzerat ;
Ekharria naiz aurkhitzen,
Hedatzeco guero loriarat.

Ez çaitat berriz ofenxatuco
Seculan, o! Yainco maitea ;
Miletan lehen hiltzea ;
Bethi çu çaitut maitatuco ;
Miletan lehen hiltzea,
Ecenez çu berriz galtzea.

XXIV CANTICA.

*Yesusen amodioaz eta ikhusminez sustatua den
bihotzaren haçgorapenac.*

AZKENECOTZ çure gana, Yesus, ene bicia,
Amodioac dakharke ene bihotz gucia ;
Ez dut nihon soseguric, çu goçatu beharrez ;
Ene baitharic banoha, çu maitatu placerez.
Othoi, bada, ez hiltzeco, Yesus, ene bicia,
Çu bethi maita çaitzadan eguidaçu gracia.

Ez dacusat oren hura, ene ganic ilkhiric,
Çurekin bathnaçakena, gorphutzaz gabeturic :
Ene desirac balute çure besoen ahala,
Hegaldaca nindohake çu gana berehala.
Othoi, bada..... berriz.

Hil beldurrac guehienac hiltzeraino dakharzke,
Eta ni nahiac ere ecin hil-araz neçake ;
Hekien beldur' gucia da gal deçaten bicia,
Eta ni, bici beharrez, nabila hil nahia.
Othoi, bada, etc.

Hilic baicen ecin bici, haüda bada çorthea !
Eta oraino bici behar bortchaz, o dolorea !
Ecin hilac ene baithan ala baidu luçatzen !
O ! heriotze maitea , cerc hauc horla berantzen !
Othoi, bada, etc.

Amodioac ez badu ene baithan indarrie,
Doloreari emoçu eguin deçan bakharric ;
Ene ganic çure gana nathorrentzat çucenki,
Ene haxaz gabeturic, çurekin nadin bici.
Othoi, bada, etc.

Ene arima gorphutz hunec gathibu dadueala !
Çurekin bat içaitetic ni guibela neçala !
Ez, ez da ceren ; nolazpait nic çurekin behar dut ;
Hunekin edo bertzela, nic çu beharco çaitut.
Othoi, bada, etc.

Bere urhaxa ez darama erbi perxeguituac,
Hain laster chirripetarat orkhaitz egarrituac,
Nola orai sustaturic ceruco khar biciaç,
Bainarama mundu petic çu ganaco lehiac.
Othoi, bada, ez hiltzeco, Yesus, ene bicia,
Çu bethi maita çaitzadan eguidaçu gracia.

XXV CANTICA.

BEKHATOREAREN BOZCARIOA YAINCOA GANAT BIHURTZEAN.

Utziz gueroz bekhatua,
Bertze bat naiz aurkhitzen ;
Ene barnea boztua
Bet-betan dut sentitzen.

Oi ! hau da alegrantzia !
Bakeric goçoenac
Bethe daut bihotz gucia,
Khenduric hango penac !

Soseguaz gabetua,
Nahasi bat beçala
Bici nintzen çoratua,
Nerorrec dakit nola.
Cembatenaz plazeretan
Bainintzen phulumpatzen,
Hambatenaz arantzetan
Barnago nintzen sartzen.

Maiz ene barneco penez
Nintzen tormentatua,
Halaber ene hobenez
Arras ahalcatua.
Cer bihotzmin ! cer borroca !
Cer ez nuen pairatzen,
Nahi guciez ithoca
Nintzenean goçatzen !

Iragan enganioa
Egun dut condenatzen ;
Munduan bozcarioa
Nuen bada bilhatzen !

Axecabez hiratua,
Bihotza grina pean,
Egon naiz asaldatua
Gambiatu artean.

Phorroscatu beçain sarri
Exaiaren gatheac,
Çoriona daut ekharri
Berekin berthuteac.
Descanxuz gaindi eguina,
Bici naiz lorietan ;
Oi ! nolaco axeguina
Den orai ene baithan !

Içan bedi cantatua
Yaunaren ontasuna,
Gucietan laudatua
Haren çucentasuna.
Aski da conbertitzea,
Harekin baketzeco,
Haren gana bihurtzea,
Dohaxu bicitzeco.

XXVI CANTICA.

*Creaturen conxideracionea gure bihotzac Yaincoa
ganat altchatzeco.*

CHORIAN, çuen oihanetan,
Lauda eçaçue Yauna ;
Aipha haren ontasuna
Inguru gucietan.

Ez bedi entzun bazterretan
Çuen musicarie baicic :
Yaun onaren ohoretan
Ez bara cantatzetic.

Arditchoac, bazca çaitetze ;
Ez dut çuen çoriona :
Goiz arrax, hari çarete
Laudatzen Artzain ona.

Çuec, haice maitagarriac,
Harraboxic eztienez,
Munduan eguin ahalez,
Emotçue graciaç.

Phausuric gabe, ixasoa
Orroaz borthizki dago;
Bainan ez du gutiago
Ohoratzen Yaincoa.

Ni baino leialago çare,
Urço tortoila gaichoa:
Laudatzen duçu Yaincoa
Egun oroz, çuc ere.

Nic behar nuen guehienic
Yainco Yauna ohoratu;
Eta ní naiz gutienic,
Hartarat lehiatu.

Ez naiz oraino abiatu
Yaun goicoaren maitatzen,

Eta haren ofentsatzen
Urtheac tut pasatu.

Ordu dut, ordu ilkhitzeco
Exaiaren gathetic,
Bide onean sartzeco,
Bekhatuac utzitic.

Huna beraz non heldu naicen
Yauna, urrikiz betheric;
Seculan ez dut çu baicen
Maitaturen bertzeric.

Badakit hobendun naicela:
Merechi dut hainitz pena;
Orhoit çaute çu çarela
Aitaric hoberena.

XXVII CANTICA.

ESKERREN BIHURTZECO.

Aire hunen gainean : *Vive Jésus! vive sa Croix!*
Edo huntan : *Jeunesse, qui dans vos beaux ans.*

Deçagun canta gogotic;
Gaiten guciac bozcaria;
Gure salbatzea gatic,
Yesus, eman duçu bicia.
Bai, bihotzaren erditic
Deçagun canta gogotic.

Deçagun canta gogotic:
Çure odol preciatua
Ichuri duçu gu gatic;
Çaren, o Yesus! laudatua.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic:
Nahiz arimac ceruratu,
Lece beltz ifernucotic,
Yesus, gaitutçu beguiratu.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic:
Yesus dela lorificatu:
Harc gaitu egundainotic
Amodio phuruz maitatu.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
O Yesus, çure øhoretan,
Boçac errepicatzetic
Ez beitez bara bazterretan.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic:
Oi! hau da gure çoriona,
Yesusec, ceru goratic
Galdetzen gaitu beregana.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic :
Deilha Yesus maitearenac
Behartu, orai beretic,
Gure eskerric handienac.
Bai, bihotzaren, etc.

Deçagun canta gogotic:
Bethi çaitugu laudatuco ;
Gauça gucien gainetic,
Yesus, çaitugu maitatuco.
Bai, bihotzaren erditic,
Deçagun canta gogotic.

XXVIII CANTICA.

ALDARECO SACRAMENDU SAINDUAREN GAINEAN.

Oi! miracuilu guciz espantagarria!
Oguiaren iduriz Yesus estalia!
Hura dut adoratzan aldare gainean;
Hura bera dut yaten comunionean.

Ene beguiec Yesus han ez dute ikhusten,
Gorphutzeco senxuec ez dute sentitzen ;
Bainan, duda gabe dut han dela sinhexten;
Fedeac arguituric, han dute çagutzen.

Yesusec eguin çuen azken afaria,
Yanharitzat emanic bere haraguia ;
Haragui saindu hura yaten dut nic ere ;
Hura yanic uste dut bici bethiere.

Gurutzeficatoric, enetzat hil dena,
Lorioski phizturic, cerurat igana ;
Hura da sacramendu hortan eçarria ;
Hura bera lurrean ene yanharia.

Biciaren arbola guciz aiphatua,
Baratze dohaxuan yaunac landatua,
Aurkhitzen da neuretzat comunionea;
Nic han dut edireiten ene bicitzea.

Izraelec yan çuen desertuan mana,
Gustu guciac bere baithan cituena;
Yesusen gorphutza da neure yanharia,
Desertu huntan ene conxolagarria.

Yaincoaren mendirat igan cen Eliaz,
Sainduki borthizturic yan çuen oguiaz;
Yaten dut aldareco ogui sacratua;
Hartaz nic ardiexi uste dut cerua.

Urerat dut lehia orkhaitz nekhatuac,
Beroz eta ihiztariz betan penatuac;
Hala dut desiratzen, Yauna, çure oguia:
Othoi, sasia çaçu ene guticia.

Choriec badituzte beren ohantzeac,
Urço tortoilec ere non eman umeac;
Çure aldareten da ene iheslekhua;
Nic han dut edireiten ene sosegua.

XXIX CANTICA.

MEÇACO SACRIFICIOAREN GAINAN.

CERUTIC yauxi çaren bictima garbia,
Çu çare sacramendu, çu çare ostia,
Arimen yanharia, sacrificioa;
Bata nola bertzea, Yesus dibinoa.

Oguia da itzultzen çure gorphutzera,
Arnoa gambiatzen çure odolera:
Conxecracionean han duçu obratzen;
Çure botherea da guciz han aguertzen.

Abelen ofrendac du çurea marcatu;
Hura çuen ceruac clarki fagoratu;
Çu Sainduago çaren ofrenda garbia,
Çu gure on gucien çare ithurria.

Abrahamec semea çuen imolatu,
Haren fedea çuen çure Aitac laudatu :
Çu çare Aita beraz guciz onhexia,
Gure esker gucien emaile handia.

Melkhisedec, erregue eta aphez handiac,
Çu seinalatzecotzat noizbait egorriac,
Oguia eta arnoa, biac ofrituric,
Çure ofrenda çuen marcatu urrundic.

Legueco ofrendetan, chahal, bildoxetan,
Idi eta ahari, urço, cecenetan
Causi othe daiteke itzalaz bertzeric,
Çuri hurbiltzecotzat deus ere gai denic?

Gurutzean beçala, gure aldaretan
Imolatua çare gure fagoretan,
Adoratzaille perfet, esker emailea,
Facegatzaile eta dohain escailea.

Manatu içan duçu azken afarian,
Gurutzean guretzat biltzeco bezperan,
Çure gorphutz garbia eta sacratua
Içan çadin aphecez bethi ofritua.

Menderen fineraïno, çutaz ornoituric,
Hori eguinen dugu, kharrez sustaturic;
Fede bici batekin gaizkitçu hurbiltzen,
Çurekin içaitea dugula galdetzen.

Çure mayestatea dugu adoratzen, ●
Çure icen saindua bihotzez laudatzen;
Barkha dietzagutçu gure bekhatuac;
Orai aurkhitzen gare urrikiz çaurthuac.

O ! Yesus, aldarean enetzat emana,
Ene yanhari goço, ostia çarena,
Eman duçu bicia arimen onetan ;
Oi ! noiz naiz goçatueo çutaz ceruetan !

XXX CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN OHORETAN.

Oi ! cer ogui dut ikhusten
Gure aldaretara
Ceru gorenetic yauxten,
Arimen bazcatzera !
Bihotz kharxua,
Amulxua,
Ene yanhari çare bilhacatzen,
Ordainez, nola çaitut mai-
tatzen ?

Yaunaren amodioa
Hemen da seinalatzen,
Oi ! hau da misterioa !
Guiçona Yaincoztatzen !
Bihotz kharxua, etc.

Yainco baten sustantzia
Gurekin da balxatzen ;
Hulaco alientzia
Nore du aski preçatzen ?
Bihotz kharxua, etc.

Enekin bat eguitea
Duçu bada bilhacatzen !
Cer duçu, Yesus maitea,
Ene baithan aurkhitzen ?
Bihotz kharxua, etc.

Hau da neure çoriona !
Cembat ontasun betan !
Salbatzaile guciz ona,
Cer ! nie, çu ene baithan !
Bihotz kharxua, etc.

Aitetan den hoberena
Aithortzen dut çarela,
Çu maite ez çaituena
Biciric hila dela.
Bihotz kharxua, etc.

Yaun ona, çure egoitza
Ceronec çaçü garbi ;
Bertzela çure emaitza
Oi ! nola errecibi ?
Bihotz kharxua, etc.

Amodio sacratua,
Eguçu gau, egunez,
Içan nadin sustatua
Çure khar bicienez.
Bihotz kharxua,
Amulxua,
Ene yanhari çare bilhacatzen ;
Ordainez, nola çaitut mai-
tatzen ?

XXXI CANTICA.

YAUN HANDIA ADORATZECO.

Aire huntan : *Sur cet autel ah! que vois-je paraître?*

CER çorion!
Oi! hau da fagorea!
Ikhusten dut Yesus maitea.
Cer çorion!
Horra cerutic
Yauxia nere gatic;
Cer çorion!

Sinhexten dut,
Cøruetan beçala
Aldarean orai çarela;
Sinhexten dut;

Seguratua,
Fedeaz borthitztua,
Sinhexten dut.

Bihotzetic,
Yesus, çaitut laudatzen,
Sacramenduan adoratzen
Bihotzetic.
Ah! ene Aita,
Çu nola nic ez maita
Bihotzetic?

XXXII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN ADORATZECO.

LAUDA çagun misterio handia,
Yainco Yauna ostian estalia :
Çuec, Aingueruac, ceruco gorthea,
Adora çaçue gure Erreguea, gure Erreguea.

Yainco guiçon, gure Salbatzailea,
Mundu, ceru, gucien eguilea,
Yaux çaitte cerutic gure laguntzerat,
Gure amuxuki benedictzerat, ben, etc.

Amodio, loria imortala
Trinitate sainduac dituela :
Ohore hirurei batasun berean,
Orai eta bethi eternitatean, eter, etc.

XXXIII CANTICA.

SACRAMENDU SAINDUAREN BENEDICIONEA EMAITEAN.

YAINCO Yauna, ostia saindu huntan
Estalia guizonen fagoretan,
Bihotz humil batez deçagun adora,
Eta eguiazki maita hura bera, maita, etc.

Yesus, guri emaiteco bicia,
Nahi duçu ičan gure oguia.
Ah! bethe gaitzatçu benedicionez,
Eta bethi lagun çure fagoreez, çure, etc.

Izpiritu dohaxu çaretenac,
Emotçue guretzat esker onac
Hambat arraçoinez çor ç aizcon Yaunari,
Orai eta bethi Trinitateari, Trinitateari.

XXXIV CANTICA.

COMUNIONE SAINBURACO AMODIOZCO DEIHAC.

NAHI duçue yakin ene guticia?
Yainco onarentzat da ene min gucia.
Ene baithan nago penxatzen
Noiz ikhusico dudan ene Yaincoa;
Ecin bertzela biciz, ah! hiltzerat noha.

Hura dut bethicotzat ene bihotzean;
Hartaz landan ez duket phausuric kurrean.
Haren gana noha lasterrez,
Itchic eta phitz deçan ene gogoa;
Ecin bertzela biciz, ah! etc.

Ixasoan arraina peitari, lasterrez,
Ez doha hain gogotic nola ni desirez ;
Eeen badakit Yesus dela
Ene arimaren yanhari goçoa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Haice alde untzi bat ez doha porturat
Hain laster, ez chori bat bere ohatzerat,
Nola ni yanhari hartarat,
Harentzat dudan amodioz, bainoha.
Ecin bertzela biciz, etc.

O ! mahain dohaxua ! Yaincoa yanhari !
Haren odola bera dudala edari !
Ene bihotzac bethi berriz
Hartaco duke bere amodioa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Lurreco yanhariac, gaitza ethortzean,
Uzten dira guciac, gaitça khien artean ;
Cer nahi den gaitz nic dukedan,
Yesus dut erremedio gucizcoa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Bertze erremedioec, ona baino lehen,
Desgustuz ene gaitza darotet berretzen :
Nic heientzat desgustu beçain,
Çuc enetzat duçu gustu eerucoa.
Ecin bertzela biciz, etc.

Hec, bere desgustuaz, barnea dute hiltzen ;
Çuc, gustu goçorekin, phizten eta bozten :
Oi ! bada ez çaituzket nic çu
Ene erremedio soberanoa !
Ecin bertzela biciz, etc.

Non ez nauçun ni laster, Yauna, conxolatzen,
Ene desira mina ez duçu complitzen.
Ez dakit dukedan indarra
Çuri hitz haukiekin erraitecoa :
Ecin bertzela biciz, ah ! hiltzerat noha.

XXXV CANTICA.

COMUNIONEAREN ONDOCO SANTA THERESAREN BOZCARIOZCO

ESKERRAC.

Biciric naiz, bainan ez, Yaincoan naiz bicia ;
Orai, harc hacirican, hartan natza gucia.
Hura ceruan beharrez,
Hiltzen naiz ecin hilez, Hiltzen naiz ecin hilez.

Amodio phuru bat sarthu çait bihotzean,
Ene Yaincoarekin bat eguin naicnean ;
Ahitua haren minez,
Hiltzen naiz, etc.

Hula bici, hula iraun, o dolore tristea !
Bicitzea da, Yauna, çu gabe bicitzea ?
Bethi hunela egonez,
Hiltzen naiz, etc.

O arrasta maitea, hil nadintzat emana,
Bethico çoriona berekin dakharkena !
Ukhitua haren colpez,
Hiltzen naiz, etc.

Amodio çoroa ! bici dolozcoa !
Ciacusat bertze bat hi ez beçalacoa ;
Orai harc eman indarrez,
Hiltzen naiz, etc.

Lurrean den bicia herio bat daiteke,
Ceina hiltzeac baicen ecin khen baitdeçake :
Orai ere, harc iraunez,
Hiltzen naiz, etc.

Herio triste bat da orai ene bicia,
Gau ilhun bat da orai ene arguia gucia :
Bici harc beretu gaitzez,
Hiltzen naiz, etc.

Bicirie hil, hilic bici, o bici hil-garria !
Harogandua minez, hiltzerat dut lehia :
Ecin complitu desirez,
Hiltzen naiz, etc.

Badakiçu, ó Yauna, çu çaitudan menetic,
Axeguinari damua darraiola ondotic :
Ah ! çohazkidan beldurrez,
Hiltzen naiz, etc.

Akhaba çaçu, Yaun ona, agonia luce hau :
Ecen, çu gabe biciz, bihotzac ecin dirau ;
Azkenecotz, çure minez,
Hiltzen naiz, etc.

Urta, porrosea çatçu ene gathe lodiac,
Ceru gorac ideki, han bath ene nahiac ;
Gathe hec ecin yasanez,
Hiltzen naiz, etc.

Bainan ez, ene Yauna, hec behar ditut yasan ;
Eguiçu çure graciaz gogotic har detzadan.
Bicitzecotz, paira, non ez,
Hiltzen naiz ecin hilez, etc.

XXXVI CANTICA.

PURGATORIOAZ.

Aire huntan : *Itzul hadi, itzul, bekhatorea.*

Oi! arima Yaincoaz onhexia,
Orhoit hadi badela lekhu bat,
Hemen arras eeruco yusticia
Satisfatu ez duenarentzat.

Borratua içan arren hobena,
Ez ciauçuc Yaincoac barkhatzen,
Gaizkiari noizbeit çor çaiõn pena
Non ez dugun osoki pairatzen.

Hurbil hadi purgatoriotarat,
Yainco botherea bera denac
Eguin duen suzeo lece hartarat;
Entzunen tue aubenie minenac.

Arima hec, gauça gutia gatic,
Bici ditue haxgorapenetan;
Urrunduac oraino loriatic,
Aurkhitzen tue tormenta dorphetan.

Cembatenaz maitagarriagoa
Eçagutzen bai-dute Yaincoa,
Hambatenaz çaiie borthitzagoa
Yasan behar duten ondicoa.

Legue balitz mundura bihurtzea,
Hango penac behin frogaturic,
Ez, ez laite cilhegui mintzatzea
Yaincoaren yusticiaz baicic.

Oi! menturaz, gure adiskideac
Gure gatic dire punituac;
Gure hauço, burhaso, ahaideac,
Gure faltaz, sutan hondatuac.

Behar bada hemen gure alderat
Amodio sopra çutelacotz,
Içan ðira purgatoriotarat
Aurthikiac hainitz urthetacotz.

Çuec, gure adiskide maiteac,
Diote maiz, nigar marrasketan,
Othoitz, barur eta caritateac
Eguitçue gure fagoretan.

Othoi, Yauna, othoi, urricalmendu
Purgatoriotan daudecenez:
Darotçugu galdetzen barkhamendu
Heien mundu huntaco hobenez.

Bara çайте, bara lei yaçartzetic;
Guehiago ez utz hec erretzen:
Ah! has beitez, atheraric su-petic,
Çutaz, Yauna, ceruan goçatzen.

XXXVII CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SAMURRARI OTHOITZA.

O! Yesusen bihotz samur,
Enetzat idekia,
Othoi, emaçu neurean
Çu ganaco lehia.

Ikhusiz çure burua
Arantzeez bethea,
Niholere ez dut nahi
Lore pean neurea.

Gurutzea dakharkeçu
Çure bihotz garbian;
Nic ere dut ekharriren
Neurearen erdian.

Yasanen dut gurutzea
Gogotic, çue beçala;
Seculan salbamenduric
Ecin duket bertzela.

Eguiçu onhex deçadan
Çuc onhexten duçuna;
Deçadan higuin osoki
Higuingarri çaitçuna.

Içanen naiz colpatua,
Yesus, çutaz bakharric;
Ez beça ene bihotzac
Senti bertze colperic.

Irakhaxten darotaçu
Humil, ezti içaiten,
Ene yaidura gaichtoac
Artharekin cehatzen.

Nahi cintuzket maitatu,
Bihotz maitatzecoa;
Ochala bada bacindu
Ene amodioa!

XXXVIII CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SACRATUAREN OHORETAN.

YBSUS onaren bihotz maitea,
Çu çare neure gucia;
Bethi da çure-ganat içanen
Bakharric ene lehia.

Norc du erranen ez dakiela
Bihotz hartarat bidea?
Soldaduaren lantzac darøcu
Ideki hango athea.

Lore suerte guciac baino
Ederrago çarelaric,
Cer gatic, bihotz maitagarria,
Arantzez çare betheric?

Alde orotarie hartzen çaituzten
Arantzeac, gurutzeac
Dire, ô Yesus! lur gaichto hunec
Eman dauzkitçun loreac.

Sainduen bake, sainduen sari,
Sainduen goço gucia
Bihotz horretan gordea datza:
Gauçaren miragarria!

Amodioaz amodioa
Pagatzen bada munduan,
Arraçoinekin duçu mereci
Neurea sacramenduan.

Orai artean ibili banaiz
Ihesi gurutzetarik,
Orai naiz çure besoetan
Bici beticotz yosiric.

Ene bihotza munduarentzat
Egon bada idekia,
Çu hartu eta, idukiren dut
Creaturentzat herxia.

Hau da, o Yesus! hil arteraino
Hitz emaiten dautçudana :
Nahiago dut hau hauxi baino,
Sarthu herrauxean barna.

XXXIX CANTICA.

YESUSEN BIHOTZ SACRATUAREN ALDERACO SENTIMENDUAC.

Aire huntan : *O mon Dieu, que votre loi sainte,*

Edo huntan : *Réveillez-vous, etc.*

BIHOTZ Yesus maitearena,
Graciaren ithurria,
Hemen naiz, bihotz samurrena,
Çure-ganat ethorria.

O! ecin azki laudatuzco
Bihotz garbi, sacratua,
Noiz çaitut bada maitatuco!
Cerc nauca sorhailotua?

Bihotz enetzat sustatua,
Berant çaitut eçagutu ;
Bihotz ezti, preciatua,
Helas ! ez çaitut maitatu.


Alferretan nauçu bilhatu,
Bihotz bethi çabaldua,
Çure ganic naiz apartatu,
Ó ! hau da çoramendua !

O bihotz nahicarazcoa ,
Munduac nau enganatu ;
Tresor, gucien gainecoa,
Ez çaitut aski preçatu.

Ala baitçait erhokeria
Çuri ez yarraikitzea !
Bihotz bethi maitagarria,
Çu ez funxki maitatzea !

Bihotz, iheslekhu segura
Creatura gucientzat :
Amodiozco gaindidura,
Cer eguiten dut çuretzat ?

Bihotz, guciz ona çarena,
Hasten naiz çure maitatzen ;
Çu gabe bici daitekena
Ósoki çait urricaltzen.



XL CANTICA.

BIHOTZECO GARBITASUNAZ.

*Asco Aireren gainean, eta guciz hunen : Dans ces
désertes campagnes, etc.*

DOHAINETAN ederrena,
Hain baliosa dena
Egun nabi dut aiphatu,
Errepicaz cantatu.
O garbitasun maitea !
Placer eztiz bethea,
Ochala ! çu laudatzean,
Bacintut bihotzean.

Berthute preciatua,
Ez aski maitatua ;
Lore gucien lorea,
Arantzeric gabea ;
Bethi duçu distiatzen,
Barnea descaxatzen ;
Çu berekin çaituena
Datza dohaxuena.

Non nuke adimendua,
Onhexterat mundua ?
Urrun da segur baidut nic,
Haren guticiaric.
Yainco choila maitatzeac,
Hari yarraikitzeac,
Eguiten dic, o guçona !
Funxezco çoriona.

Amodio munducoa,
Phoçoin ondicozcoa,
Phisuac eta dorpheac
Dituc hire gatheac.
Non çaitut, castitatea,
Bihotzaren bakea,
O ! berthute berecia,
Çutan natza gucia.

Çuc nauçu, castitatea,
O berthute maitea !
Osoki bozcariatzen,
Damuetan conxolatzen :
Berthute hunen indarra
Froga çac, mundutarra ;
Bertze bat haiz aurkhituren,
Bihotza çaic bozturen,

Çue duçu, castitatea,
Çeru goren gorthea
Beregainki loriatzen,
Saindu berriz publatzen :
Çure bidez han sartzeco,
Yaun onaz goçatzeco,
Egonen naiz, hil artean,
Nahi kharxu batean.

XLI CANTICA.

MEDISENTZIAZ.

Ecagutuac diren hainitz Aireren gainean.

Bicio bat orotarar ondicoz hedatua,
Arimen gal arazteco Sathanec asmatua
Hemen balxan begar dugu lehiaz atacatu,
Christauen bihotzetaric bethicotz desterratu.

Hura da gure mihiaz gaizki baliatzea,
Bethi cerbeit erraiteco bertzeentzat aurkhitzea;
Hura da medisentzia; lazten nau aiphamenac!
Norc compreni, norc esplica seguida dakharzkenac?

Nor da haren guericean eman daitekeienic?
Cein da bada cerbeit guisaz colpatzen ez duenic?
Haren lantza colpe minac norc ez ditu frogatzen?
Haren phoçoin caltecorra non ez othe da sartzen?

Nohan huna, nohan hara, nohan gucietara,
Mihiac ditut causitzen plegatuac gaizkira:
Batere banaiz tricatzen munduco solhasetan,
Bethi cerbeit dut entzuten lagunaren ealtetan.

Nihor ez du medisentac munduan guphidexten;
Yaincotiarrac ohi tu guehienic gaitzexten:
Ez mirex nahi badio bertzeen ohoreari;
Inbidia, yelosia ditu bere guidari.

Medisentaren mihian ez da ceren khondatu,
Haren baithan fida dena laster daite trompatu;
Sugue bat da lore-pean gorderic bici dena,
Noiz edo noiz, nor edo nor ausikitzen duena.

Aditzerat medisenta, berac ez du baiaric,
Inocentia bera da pharte gucietaric ;
Lasto bat ikhusiren du bertzeren beguietan,
Eta laça lodiena behinere beretan.

Ez du proximo laguna berehala larrutzen,
Hasteac ederrac ditu, badaki lausengatzen ;
Heldu da guero bainan bat ; hitz hunen maleciac
Içurriztatzen ohi tu laudorio guciac.

Hic dituc, medisentzia, hauçoac asaldatzen,
Adiskide, ahaidetan hotztasunac eçartzen ;
Hedatzen duc nahasdura gure bihotzetara,
Herri, hiri, erresuma, bazter gucietara.

Cer ethorri çare bada, caritate maitea,
Dohain eder,preciatu, placer gocoç bethea ?
Cer bilhacatu da bada çutaz eman manua ?
Oinen azpian dabila ; oi ! hau çoramendua !

XLII CANTICA.

MISIONE EDO ERRETRETETACO DEMBORAN.

Hainitz Aireren gainean.

Oi ! Yauna, çure graciaç
Ezçaizkit baliatu ;
Çure fagore guciac
Bethi tut arbuiatu ;
Niri ongui eguitetic
Ez, ez çare baratu :
Ordainez, ene phartetic
Nola çaitut maitatu ?

Laguntza berecienez
Orai inguratua,

Eguia entzun tudanez
Gucia unkhitua,
Osoki naiz ahalcatzen
Bicitze iraganaz,
Ene bihotza da çaurthzen
Urrikirie minenaz.

Helas ! harrocaren pare
Çuretçat naiz aguertu ;
Guciarekin ez çare,
Yaun ona, mendecatu.

Ah! egun dohaxu hautan
Graciac nau garhaitzen;
Sarthua naiz ene baithan,
Funxki çaitut maitatzen.

Urrun hadi, bekhatua,
Urrun ene bistatic;
Iduki nauc trompatua,
Galtzer nauc hire gatic.
Ifernurat erortzea
Maiz diat irriscatu,
Su lametan erretzea,
Ceren haudan maitatu.

Gaizkiac ditut largatzen,
Çuri yarraikitzeo,

Onguia dut besarcatzen,
Yauna, çu ganatzeco.
Oi! çure ganic ez nago
Seculan urrunduric;
Akhabo da, guehiago
Batere bekhaturic.

Çaharrac eta gazteac,
Eman gaiten cantatzen,
Khar saindu batez betheac,
Yaun ona ohoratzen;
Bai, canta çagun gogotic
Cerua laudatzeco,
Gure boçac balxaturic,
Eskerren bihurtzeo.


PREDICUETACO AVE MARIA.

AGUR, Ama Yesus maitearena,
Emaztetan gucien garbiena;
Bethi dela benedicatua
Çure ganic, çure ganic, çure ganic sorthua.

O Biryina, gure laguntzailea!
Othoitz çaçü, othoitz salbatzailea
Egun oroz, gure fagoretan,
Eta guciz, eta guciz, hiltzeo orenetan.

ARROSARIOCO

HANABORTZ MISTERIOAC.



BORTZ AXEGUINEZCOAC.

I. INCARNACIONEA.

ADORATZEN çaitut, Berbo dibinoa,
Ceren eguin çaren guiçon ene gatic ;
Eta çuri dautçut ohore osoa,
Amatu çarena, Biryina egonic.

Misterioaren fruitua : Humilitatea.

II. BIRYINAREN ANONTZIACIONEA.

Biryina Saindua, ceinaren bisitac
Joanes bethe baitdu bethicotz graciaz ;
Çu beraz çaitzala, çu ene bihotzac,
Leialki cerbitza, maita ahal guciez.

Misterioaren fruitua : Caritatea.

III. YESUSEN SORTZEA.

Pobre sorthu çare, Yesus, estabitan ;
Adoratzen çaitut egun lasto-pean ;
Probetchaturen naiz, bicitze gucian,
Çure exempluaz humilitatean.

Misterioaren fruitua : Pobreciaren amodioa.

IV. YESUS TEMPLUAN AGUERTZEA, EDO BIRYINAREN PURIFICACIONEA.

Biryina, Templuan purificatua,
Eta sustatua Simeon beçala ;

Noiz aurkhituren naiz haxaz gabetua,
Christo hiltzeraino gogoan dudala?

Misterioaren fruitua: Obedientzia.

V. YESUS TEMPLUAN AURKHITUA.

Amac, nigarretan, Semea galduric,
Bozic aurkhitzen du Doctoren erdian;
Jesus, ene huxez nigarrac eguinic,
Aurkhituren çaitut nie ere aguian.

Misterioaren fruitua: Contricionea.

BORTZ MISTERIO DOLOREZCOAC.

I. YESUS OLIBETÀCO BARATZEAN OTHOITZEAN.

EGORRI khalitza, Jesus, duçu hartzen;
Sumetitzen çaizco manu dorpheari;
Ni ere natzaio cinez sumetitzen,
Cer nahi penetan, çure nahiari.

Misterioaren fruitua: Sumetimendua.

II. YESUS AÇOTATUA.

Jesus, harroinari larru-has lothua,
Açotez çaituzte çaurthzen barbaroki;
Eguicu ni ere, noiz nahi herxtua,
Gaitzentzat ez nadin içan minberegui.

Misterioaren fruitua: Pacientzia.

III. YESUS ARANTZEEZ KHOROATUA.

Monarken Nausia, helas! odoletan
Burreuec çaituzte errabiaz eman;
Eta nie, ezdeusac, placer gucietan
Bicitze labor hau deçadan eraman!

Misterioaren fruitua: Mortificacionea.

IV. YESUS GURUTZEAZ CARGATUA.

Isaac berria, Yesus, ene gatic
Hartu ičan duçu gurutze dorphea ;
Gogotic yasanen dut çure ondotic,
Animoz betheric, nic ere neurea.

Misterioaren fruitua: Urricalmendua.

V. YESUS GURUTZEFICATUA.

Çuc osatu duçu, Yesus, gurutzean
Obra gucizcoa, gure erospena ;
Erakhuxten duçu, horrela hiltzean,
Gure salbatzeco kharric biciena.

Misterioaren fruitua: Iraupena.

BORTZ MISTERIO LORIOSAC.

I. YESUS PHIZTUA EDO ERRESURRECCIONEA.

YESUS hilic phiztu, cer bozcarioa !
Ni ere berekin phiztu nau gracion.
O cer eçagutza, ô cer amodio
Bihurturen diot, bicitze berrian !

Misterioaren fruitua: Conberxionea.

II. YESUS CERURAT IGAITEA.

Çohaz loriara, Yesus yauna, çohaz
Ènetzat lekhu bat han aldaratzerat ;
Exaien artetic, gracion laguntzaz,
Hel araz naçaçu loria bererat.

*Misterioaren fruitua: Munduco gaucen alderaco ez-
anxiatasuna.*

III. IZPIRITU SAINDUAREN YAUXTEA.

Izpiritu Saindu, lurrera yauxia,
Bethea çarena ceruco indarrez ;
Susta dieçadaçu bihotz gucia ;
Erre bekit, Yauna, çu ganaco kharrez.

Misterioaren fruitua: Erretiramendua.

IV. AMA BIRYINAREN HERIOTZEA.

Amodioz çare biciaz gabetzen ;
Biryina Saindua, çohaz loriarat ;
Nic ere neurea dudanean galtzen ,
Çaren bitarteco hel nadin hartarat.

Misterioaren fruitua: Yaincoarekin batasuna.

V. AMA BIRYINAREN CERUAN ERRECIBITZEA.

Ama dohaxua, ceru gorenean
Çure haur maiteac çaitu khoroatu ;
Errespetatzen dut, ahuspez lurrean,
Çure botherea : sokhorri naçaçu.

Misterioaren fruitua: Fidantzia.

NOELAC.



I. NOELA.

O ! Eguberri gaua,
Bozcariozco gaua,
Alegueratzen duçu
Bihotzean Christaua.

Mundu gucia duçu
Çorionez bethetzen,
Çeren çuc baidioçu
Mesiaz dela sortzen

Gau ilhunean ez da
Agueri iguzkiric ;
Hunetan dacusagu
Miracuiluz ilkhiric.

O ! gau desiratua,
Çucia duçu phiztu,
Çeinac mundu gucia
Behar baitu arguitu.

Arguiçaguiac dire
Bozcarioz dantzatzén,
Ohi baino dutela
Guehiago arguitzen.

Aingueru onac berriz
Hasi dire cantatzén,
Bozterat dituztela
Tristeac gonbidatzén.

Errepicatzen dute
Maniuretez artzainec;
Adarrari diote
Ihardexten larrainec.

Arrainac hari dire
Yaucica ur barnean,
Abreac mendietan,
Hegaztinac airean.

Gauça guciac dire
Orai alegueratzén;

Orobat eguiterat
Gaituzte erakhartzén.

Ifernucó ostea
Gau huntán da tristatzén,
Haren centzatzáilea
Ceren den orai sortzen.

Idolac aldaretan
Betan dire muthutu ;
Aztiec arraçoína
Laster dute galdetu.

Bertzeric ez daroc
Deusere ihardexi,
Haur batec dituela
Baicic ichil-araci.

Ichildu behar çuten,
Guc ordainez cantatu
Çorionean dela
Yainco Semea sorthu.

II NOELA.

Oi ! gau dohaxua,
Yaincoaz hautatua,
Çaucuna hurbiltzen ;
Mesiaz maitea,
Graciaz bethea
Da munduratzén.

Hox, Aingueruekin,
Arcanieluekin,
Gaur cantatzera,
Gure Erreguearen,
Yainco eternalaren
Adoratzera.

Ez içotza gatic,
Ez ilhuna gatic,
Ez egon herabez ;
Har fedea guida,
Yesus baithan fida;
Goacen lasterrez.

Hemen dut sinhexten
Beguiez ikhusten
Banu beçala,
Mariat umea,
Ume hain maitea,
Yainco duela.

Harentzat lekhuric,
Hain guti oheric
Ez cen aurkhitu;
Tresoren yabea,
Gucien printzea
Cen arbuiatu.

Erregueee etcheac
Dituzte betheac
Gauça ederrez;
Yesus, çu lurrean
Eta lasto-pean
Çaude nigarrez.

III NOELA.

O! Eguberriren airean.

YAIKI gaiten, christauac,
Guciac ohetaric,
Hel gaiten Eliçarat
Boz eta alegueraric.

Çu çare, badakigu,
Creaturen Yaincoa.

Aingueruen cantuec
Gaituzte gonbidatzen,
Artzainen maniuretec
Lotharic iratzartzen.

Yauxi çare cerutic
Mundua salbatzera;
Heldu gare lehiaz
Çure adoratzera.

Eman gaiten guciac
Lurrean belhaunico,
Sorthu den haurtchoari
Ohore bihurtzeco.

Arren bada ohore
Çuri darotçuguna
Ègun onhex eçaçu,
Othoi, gure Yaun ona.

Agur, ceru goraren
Erregue gucizcoa,

Ordainez, eguiguçu
Çuc halaber gracia,
Çure sortze sainduaz
Gaiten ongui balia.

IV NOELA.

Badohake Aire huntan : A la venue de Noël, etc.

Dugun alegrantzietan
Canta Yesusen sortzea,
Gure ahal gucietan

Ohora Yainco semea.
O! Yesus, çure gracia
Ganbia gaitzan guciac.

Errepicaz Aingueruac
Entzuten dire cantatzen;
Gu ere, loriatuac,
Has gaiten Yauna laudatzen.
O! Yesus.... (*Berriz.*)

Yesus erregueez, artzainez
Içan da adoratua;
Ah! gutaric guehienez
Nola da eçagutua?
O! Yesus, etc.

Yesus, negu gogorrean
Ohetzat duçu lastoa;
Nola beraz placer pean
Dukegu gure gogoa?
O! Yesus, etc.

Sortzetic aphaltasuna
Darocuçu predicatzen;
Cer gatic goratasuna
Dugu bada guc bilhatzen;
O! Yesus, etc.

V NOELA.

CERU, lurrac, has çaitetze
Bozcarioz cantatzen,
Ceren orai gaua duen
Iguzkiac arguitzen.
Duela lau mila urthe
Içar igurikiac
Ditu lurretic urruntzen
Itzal, hedoi guciac.

Lurra ceru eguiteaz
Ez gaitecen espanta,
Guiçon eguinda Yaincoa,
Ceruaren presenta!
Guiçon eguin denaz gueroz,
Ceren escas dukegu?
Yauxi behar cen Berboa
Orai gurekin dugu.

Arren beraz khechá gaiten,
Goacen Bethleemerat,
Artzainekin bat eguinic,
Haurra adoratzerat:

Han dela gure bakea
Diote Aingueruec;
Yaun goicoari loria
Çor diogu guciec.

Ez, ez dugula beldurric
Haren maiestateaz;
Eguigun lehen bai lehen
Haren hatzemaiteaz:
Gracien ithurburua
Du berekin ekhartzen;
Beldurra khasaraciric,
Bihotza du galdetzen.

Orai beraz altea gaiten
Ohe guri hautaric;
Haur yaio berria gana
Goacen elkhar harturic.
Gu cerura guidatzeco
Cerutic ethorria,
Oi! huna non daeusagun
Trochetan eçarria.

Bere manuz, ceru, lurrac
Bethi darabiltzana
Guizonaren da manuco
Orai bera emana.
Guri beraz emaiteco
Bere yaincotasuna,
Berac du berekin hartzen
Gurè guizontasuna.

Ez dukeçu, o! Maria,
Haurarentzat oñtatu;
Bera beharco den arren
Gucien ihes lekhu.

Balakike, nahi balu,
Berac toki bilhatzen;
Humiltasuna darocu
Hastetic predicatzen.

Etchola tchar bat citçaion
Aski içanen cela;
Guizonekin lasterrenic
Handic bath citekela.
Eta beraz, Artzain ona,
Huna gure bihotza;
Nahia duçun beçala
Eguçu han egoitza.

VI NOELA.

Aire hunen gainean : *Or, dites-nous, Marie....*

Edo : *O ma tendre musette, etc.*

CANTA çagun guciec
Ahalic gorena;
Lauda çagun Maria,
Andre handiena.
Yakin çuen cerutic
Cer cen guerthaturen;
Biryina gueldituric,
Cela amaturen.

Gure salbamenduaz
Erraçu, Maria,
Nore ekharri çarotçun
Cerutic berria?
Gabriel Aingueruac,
Etchean sarthuric,
Yaincoari ceruan
Gu urricalduric.

Cer Aita eternalac
Çuen gaztiatu?
Gabriel Ainguerua
Nola cen mintzatu?
Salutatzen çaitugu,
Biryina Maria,
Gracia da çurekin
Eta Yaun handia.

Cein lekhutan cinauden
Hitz hauc aditzean,
Gabriel Aingueruac
Çu salutatzean?
Galilean nindagon,
Herri ederrean,
Ene guelan bakharric
Debocionean,

Gabriel Aingueruac,
Çu salutaturic,
Eman içan çarotçun
Deus bertze berriric ?
Contzebituco duçu,
Cioen, sainduki ;
Seme içanen duçu
Yainco bat segurki.

Maria, othe cinen
Çure baithan laztu,
Hitz horiez cenean
Gabriel mintzatu ?
Bai, ez bainuen nahi
Seculan ezcondu,
Ez eta Biryinaren
Ohorea galdu.

Aingueruac cer erran
Çarotçun, Maria,
Ikhusiric cinela
Trublatsu gucia ?
Izpiritu Saindua
Da seinalatuco ;
Miracuilu hori du
Berac obratuco.

Maria, Ainguerua
Cinduen sinhexi ?
Eta nola cinioien
Hari ihardexi ?
Ceruetaco Yauna
Dela adonatu,
Haren nahi saindua
Osoki complitu.

Erditzeco dembora
Cenean ethorri,
Eman içan cinioien
Yesus munduari ?

Bai, sorthu cen ordutic
Fruitu dibinoa,
Gucien salbatzeco
Ceruco Yaincoa.

Erraguçu, Maria,
Haren sor lekhua ;
Ala cen palacio,
Ala gastelua ?
Oi ! ez cen ez horrela
Munduratu aguertu ;
Heia haxi bat çuen
Sorlekhutzat hartu.

Nor ethorri citzaion !
Agur eguitera ?
Hurbildu cen handiric
Besten emaitera ?
Guicon eta emazte
Guti cen aguertu ;
Esclabo batzu guisa,
Guintuzten largatu.

Ez cen bada, Maria,
Bederen artzainic
Yesus adonatzera
Lehiatu cenic ?
Bai, artzainac cituen
Lehenic ikhusi ;
Hekien bihotz onac
Cituen onhexi.

Erraguçu, Maria,
Bacen erregueric
Çure Seme Yaincoa
Ikhusi çuenic ?
Hirur erregue ciren
Urrundic hedatu ;
Eta bere presentez

Çuten ohoratu.

Erraguçu, Maria,
Handitu cenean,
Ea çuten guciec
Maitatu lurrean ?
Bai, maite içan çuten,
Bainan ez yuduec,
Coleraz, inbidiaz,
Herraz ixutuec.

Hitz gutiz laburtzeco,
Erraçu, Maria,
Gurutzean itzatu
Çuten Yaun handia ?
Ai! bai, itzatu çuten
Yaincoa habean,
Gaizki acusaturic,

Ohoinen artean.

Erraguçu, Maria,
Ea urrun cinen,
Ala hurbil Semea
Ikhusi cinduen ?
Haren aldean nintzen
Ongui flacatua,
Nigar kharraxenetan
Gucia urthua.

O! Biryina Saindua,
Othoizten çaitugu,
Semearen tronuan
Lagun çakizkigu :
Yuiatzean mundua
Azken egunean,
Eguiçu eman gaitzan
Bere escuinean.

VII NOELA.

Aire hunen gainean : *De tout un peu; edo Du haut en bas.*

Oi! Bethleem!
Ala egun çure loriac,
Oi! Bethleem!
Ongui baidu distiatzen!
Çu ganic heldu den arguiac
Bethetzen tu bazter guciac,
Oi! Bethleem!

Cer ohore!
Ala baitçare goratua!
Cer ohore!
Cer gracia! cer fagore!
Ceruaz çare hautatua,
Yesusen çare sorlekhua;

Cer ohore!

Azkeneco
Hor heldu da Yesus yustua,
Azkeneco,
Gu dohaxu eguiteco;
Herxi nahi du ifernua,
Gureztat çabaldu cerua,
Azkeneco.

Gure gatic
Yainco bat botherez bethea,
Gure gatic
Yauxten da ceru goratic;
Bai, sortzen da Yesus maitea,

Bictima notharic gabea,
Gure gatic.

Maniateran
Datza haurric aberaxena,
Maniateran!

Norc çuken secular erran
Ceru, lurren Yabea dena
Ikhusiren cela etzana
Maniateran?

Artzainekin
Heldu naiz çu gana lehiaz

Artzainekin,
Hec beçala nahiz eguin.
Adoratzen çaitut, Mesiaz,
Eta maite bihotz guciaz,
Artzainekin.

Ez dut deusic
O Yesus! çuri escaintzeco,
Ez dut deusic,
Bihotz hobendun bat baicic :
Eskerren çuri bihurtzeco,
Hambat emaitzen pagatzeco
Ez dut deusic.

VIII NOELA.

ATZAR gaiten, atzar lotaric,
Gau huntan da Yesus sortzen;
Amodioac garaituric,
Gure gatic da ethortzen.
..... *Berriz.*

Gu cerurat nahiz alchatu
Yesus yauxten da lurrerat;
Heldu da, gu nahiz salbatu,
Gorphutz hilkhor bat hartze-
rat.

Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Ala haren laudorioac
Behar baitugu cantatu!
Ala gure bozcarioac
Behar baitu seinalatu!
Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Bekhatua, munstro tristea,
Oha hire lece beltzerat ;
Ethorri due Yesus maitea
Hire obren urratzerat.
Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Cerc gaitu bada guibelatzen?
Hel gaiten, hel Yesus gana;
Bekhatoren gatic da sortzen
Saindutasun bera dena.

Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Ikhusgarri mirextecoa!

Oi! hau da humiltasuna!

Ceru beraz goragocoa

Maniateran da emana.

Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Erreguen Erregue delaric,

Ez du nahi distiatu;

Ez du nahi palacioric;

Heia tchar bat du hautatu.

Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Hotzaz ere da penatua

Sasoinen Manatzailea;

Guciez datza gabetua

Gucien Creatzailea.

Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Bi bestia ditu laguntzat;
Horra Yesusen gorthea ;
Lasto guti bat etzantzatzat,
Oi ! hau gauçaren dorphea !
Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Exenplu miragarrienaz
Yesusec gaitu behartzen,
Amodioric kharxuenaz
Bere gana gonbidatzen.
Atzar gaiten, atzar lotaric, etc

Amodioac du sustatzen
Haren bihotza guretzat :
Has gaiten, has haren maitatzen;
Declara gaiten harentzat.

Atzar gaiten, atzar lotaric,
Gau huntan da Yesus sortzen;
Amodioac garaituric,
Gure gatic da ethortzen.

IX NOELA.

URTHEBERRI EGUNECO.

Egun estrainatu gaitu haurrac odolaz... *biz.*

YESUS, haurtcho larru delicatua,
Gure gatic çare doloratua,
Çortzi garreneco odolstatua.

Egun estrainatu gaitu
Haurrac odolaz.

Urthe berri dugu, egun lehena;
Onez berri guçu bihotz barnea,
Barkhatzen duçula gure hobena.

Egun..... *berriz.*

Galtzen hari guinen orai artean;
Emaiten gaitutçu portu onean,
Fundi ez gaitecen ixaso-pean.

Egun, etc.

Huna hemen orai yaio berria,
Berritzen duena mundu guçia;
Gu salbatzeco du hartu bicia.

Egun, etc.

Yesus, çuc iguçu çure arguia ;
Bethiere gaiten hortaz balia,
Ikhus deçaguntzat çure loria.
Egun, etc.

Estraina gaitzatçu, Yesus maitea ;
Bake saindu baten dugu galdea ;
Eguçu dohaxu gure çorthea.
Egun estrainatu gaitu
Haurrac odolaz.

X NOELA.

TRUFANIA EGUNECO.

Christo guciec deçagun egun adora.... *berriz.*

HAUCHE da içarra aguertzen dena !
Berri bat dakharke den handiena,
Yesus maitearen sortzearena.
Christo guciec deçagun egun adora.

Hirur erregueac ditu guidatzen,
Yesus haurra gana dire hedatzen,
Presentekin dute han adoratzen.
Christo guciec, etc.

Myrra, inxenxua eta urrea
Ekharizen dautçute, Salbatzailea,
Çuri escaintzeco present berea.
Christo, etc.

Gaspar Erregueac, Yainco handia,
Adi arazten du myrraz eguia,
Guçona çarela larruz bestia.
Christo, etc.

Baltaçarrec, emaitan urrea,
Bai, dio çarela, Yesus maitea,
Erregue gucien lehen printzea.
Christo, etc.

Melkhiorrec ere du sinhextea,
Bere inxenxuz eman fedea
Eguiaz çarela Yainco Semea.
Christo, etc.

Hitz batez hirurec fede osoa
Badute çarela Yaun cerucoa,
Guçona, Monarca eta Yaincoa.
Christo, etc.

Içar distios bat hei egorriric,
Atheratzen tutçu ilhumbetarie,
Çure gana deithzen tronuetarie.
Christo, etc.

Ni ere arguitzen nauçu fedeaz ;
Eguçu oraino heien chedeaz
Adora çaitzadan aldi neureaz.
Christo, etc.

Egun egor guçu içar çurea,
Aurkhi deçaguntzat gure Yabea,
Çu ganat heltzeco chuchen bidea.
Christo guciec deçagun egun adora.

XI NOELA.

HAUR INOCENTEN SARRASKIA.

ERREGUEAC çaudecela	Hainbertze non othe daude ?
Hauraren adoratzen,	Erran çuen ascotan;
Errepustaren beguira	Adios erran çautaten
Herodes cen unhatzen,	Berriz itzultzecotan.

Ez ahal naute burlatu,
Hirur nola hirurec;
Bere hitzac idukitzen
Dituzte erregueec.
Haren ganaco cirela
Çuenean exitu,
Coleraturic citzaien
Soldaduei mintzatu.

O ! gazte, peril handitan
Bethi ene lagunac,
Eracux çaitetze orai
Ere animodunac.
Errepustaric ez dute
Erregueec bihurtu :
Sorthu denarekin dute
Ene contra aditu.

Nihor ez dut eçagutzen
Nausi neure gainean,
Çuec ere nitaz landan
Nihor, ene ustean.
Borroca handienez
Datza ene gogoa,
Ceren nahi darotaten,
Orai khendu khoroa.

Cein den ere nic ezdakit
Sorthu den erreguea;
Hala bethi naiz guelditzen
Khechagunez bethea.
Çohazte, hil eçatçue
Bethleemgo semeac,
Bi urthetaraino heltzen
Diren ume cheheac.

Hiricoac hiltzatçue,
Baita ingurutacoac :
Galdu behar du bicia
Erregue delacoac.

O ! gazteac, eguiçue,
Othoi, diliyentzia;
Peril hautaric athera
Çaçue ene bicia.

Abiatu ciren, harma
Çorrotzac escuetan,
Arguitzen çutela, nola
Içarrec ceruetan.
Yoan ciren sehasketara
Haur gaichoen hiltzera,
Baita çokholuetara
Gordeac aurkhitzera.

Alfer, haurrekin ihesi
Dohaz ama tristeac ;
Ardiexten tu soldadu
Pietate gabeac.
Bi mila ciren iragan
Harma çorrotzetaric,
Ama gaichoen auhenac
Guti urricalduric.

Lur gucia cen estali
Haur gaichoen gorphutzez,
Ibaiaç ere gorritu
Heç ichuri odolez.
Odola cen amen esnez
Oraino nahasia;
Ecen, doidoia ahotic
Çuten utzi dithia.

Herodesec hala çuen
Hil bere egarria.
Nor egon gaitzitu gabe
Halaco errabia ?
Ez çuen bere nahia
Erregue harc conplitu ;
Handic çuen Yesus haurra
Yosepoc aldaratu.

XII NOELA.

AZKENECOAREN SEGUIDA.

Haur inocenten amen bihotz-mina.

INOCENTEN ama onac
Guciz ciren harritu,
Soldaduac cirenean
Bethleemerat hedatu.
Icialdura citzaien
Ethorri bihotzera,
Nigarra beguietara,
Ikhara gorphutzera.

O haurtchoac, çuten erran,
Çuec bada hain sarri
Behar çaituztegu galdu,
Bihotzen hiragarri!
Madarica dadillala
Herodez barbaroa!
Ceinac hanbat asaldatzen
Baidu gure gogo.

Batzu ciren abiatu
Haurtchoekin ihesi;
Laster ordean cituzten
Burreuec ardiexi :
Berehala bere harmac
Atheratu cituzten;
Eta haurtchoei lehoinac,
Leguez, yauxi citzaizten.

Besoac çaduzcatela
Airean altchatuac,
Amec ekhartzen cituzten
Aitzinerat escuac.

O burreu cruelac ! ama
Nigarxuec diote,
Helas ! gure haur gaichoec
Cer gaizki eguin dute ?

Baldin huxic bada, dituc
Oro gure aldetic,
Eta ez eçagutzaric
Ez duten haurretaric.
Guri iguzkigutçue
Heriozco colpeac,
Eta utz biciric gure
Yaio berri umeac.

Bainan, ez ciren hargatic
Batere guibelatu ;
Aitzitic çuten escua
Haurretarat hedatu.
Hortic tira, handic tira
Hari ciren guduan ;
Burreuec tuzte garhaitzen
Amac azken buruan.

Bere harmac tuzte sartzen
Crudelki gorphutzean,
Eta haur gaichoac uzten
Hedatuac lurrean.
Çaurietaric çurrutan
Çarioten odola,
Ithurritic ur garbia
Ethortzen den beçala.

Ama gaichoac citçaizcon
Eman deihadarrari,
Eta bihotzac çaurthuric,
Osoki nigarrari.
O haur maiteac, cioten,
Bere damu minean,
Ochala ! hil bacinete
Çuen sor egunean.

Yaio beçain sarri, burreu
Pietate gabeac
Eman çaituzte lurrera,
Nola brumac loreac.
Ala gu baigare ama
Ongui ondicozcoac.
Ikhustez sarraskitan
Helas! gure haurtchoac !

VEXILLA REGIS.

Pasioneço eta gurutze sainduaren besta egunelaco

Hymnoa.

Hymnoa beraren airean.

ERREGUE handienaren
Banderac du distiatzen ;
Yesus, Yainco guiçonaren
Gurutzeac du arguitzen.

Guiçonen Creatzailea
Guiçonec han eman çuten ;
Yustuen Buruçaguia
Faltiarrentzat han hil cen.

Lantza crudelaz saihexa
Han cioten erdiratu ;
Handic gure garbitzeco
Odola cen abiatu.

Egrietan cen guerthatu
Orduan Dabiten hiltz hau :
Yainco handiac çuraz du
Mundu gucia salbatu.

Çur eder, çur arraixua,
Çur guciz preciatua ;
Gorphutz haren hunkiteco
Içan çare hautatua.

Çure besoetan egon da
Gure Yesus itzatua ;
Orai da exai gaichtoa
Çure bidez bentzutua.

Çutan dugu esperantza,
O gurutze sacratua !
Ceren den mundu gucia
Çutaz erresketatua.

Berthutean çuc emoçu
Yustuari abantzua ;
Gambia çaçu onerat
Bekhatoros ohitua.

Eskerrac, Trinitatea,
Darozkitçugu bihurtzen,

| Gurutzeaz erosiæ,
| Eguiçu gal ez gaitecen.

FORTI TEGENTE BRACHIO.

*Bazcoco hymnoa, Bazcoetan cantatzen den hym-
noaren airean.*

ARROPA churi, ederra,
Yaun onaren ohoretan,
Yende onac, yauntz deçagun
Bozcarioz Bazcoetan.

Athera garenaz gueroz
Exaien escuetaric,
Yainco-guiçonac tuela
Eskerrac gucietaric.

Haren gorphutz sacratua,
Hilic lantçaz cilhatua,
Aldarean da bicia,
Yaunari conxecratua.

Harc gaitu, Bazco bezperan,
Arimac urricalduric,
Amulxuki beguiratu
Faraonen colpetaric.

Christo da gure Bazcoa,
Bildox notha gabecoa,

Gure gatic gurutzean
Sacrificatu Yaincoa.

Ostia miragarria,
Sathanen centzatzailea ;
Çu çare, Yesus maitea,
Gure conxolatzailea.

Christo phizten den ordutic,
Ifernua da cerratzen,
Eta gure fagoretan
Parabisua çabaltzen.

Gauça gucien autora,
Ceren den Bazco dembora,
Bician eta hilean,
Othoi gaitzatçu fagora.

Bethiereco loria
Eman bekio Aitari,
Seme, hilic phiztuari,
Izpiritu sainduari.



XIII.

YESUSEN PHIZTEAREN GAINEAN.

PHIZTU da lorios
Yesus hilen artetic,
Igan bitorios
Cerura gure gatic;
Eta ni munduan
Hila bekhatuan :
O heriotze tritea,
Bekhatutan bicitzea!


Nic ere nahi dut,
Yauna, çurekin phiztu;
Bethi nahi çaitut
Orai danic maitatu :
Utzten dut mundua,
Arras bekhatua ;
Ez, ez dut nahi biciric
Çu cerbitzatzeco baicic.

Bekhatoros nintzen,
Ondicozco çorthea !
Orai naiz aurkhitzen
Çurekin, Yaun maitea :
Çu çaitut bilhatzen,
Bakharric maitatzen ;
Biciaz çait gabetzea
Çure ganic urruntzea.

Cein naicen flacoa
Miletan dut frogatu ;
Baiki, Yaun-goicoa,
Maiz çaitut ofenxatu.
Bethicotz naiz galtzen,
Ez baçaizkit heltzen ;
Mundua çait nausituren,
Laster nau escuraturen.

On bada munduan
Çuri yarraikitzea ;
Leguez da ceruan
Hobe çu laudatzea :
Han sarturen dena
Da dohaxuena.
Oi ! noiz naiz harat helduco ?
Noiz naiz çutaz goçatueo ?

Usoa beçala
Noiz naiz hegaldaturen,
Noiz naiz berehala
Çu ganat hedaturen ?
Gaizkiac uzteco,
Çurekin phizteco,
O Yesus ! ene gucia,
Othoi, indaçu gracia.



MUNDUARI ADIOS.

Aire hunen gainean : *Hélas ! quelle douleur.*

Helas !
Cer hari naiz,
Ni certan naiz
Mundu triste huntan ?

Helas !
Cer hari naiz,
Ni certan naiz,
Nola bici naiz ?

Hartua
Haren sareetan,
Herxtua
Haren gatheetan,
Helas !

Heriora,
Yaincoa-gana ?
Ni nola noha ?

Lurra,
Certaz naucac ?
Hic placerac
Darotzac hitzeman.

Lurra,
Certaz naucac ?
Hic placerac
Aguindu dauztac.

Ordean,
Bethi gueçurretan
Orotan
Hi haut nic atzeman.

Lurra,
Tromperian,
Bekhatuan
Certaz naucayan ?

Bainan,
Noren bada
Hobena da,
Ahanzten baçaitut.

Bainan
Noren bada
Hobena da,
Ni ceihartzea ?

Çure-obrac
Beguietan ditut,
Hoin clarac ;
Nola-ahanzten ditut ?

Bainan,
Ah, Cerua !
Bai, Yaincoa,
Ni naiz galdua.

Çure
Aguintzetan,
Erranetan,
Çu çucen aurkhitzen.

Çure
Aguintzetan,
Erranetan
Bethi batetan.

Mundua
Bethi gueçurrean,
Gogoa
Bethi escasian ;

Çure
Bai eguinac,
Bai erranac,
Ene arguiac.

Bethi
Herioa,
Eta hobia,
Yauna, bistan ditut.!

Bethi
Herioa,
Eta hobia
Bethi-idekia;
Horier
Beguiac herxitut ;
Horier
Gorraren eguin dut
Bethi ;
Oi çoróa !
Oi Yaincoa !
Ni norat noha ?

Guero
Loria bat,
Oi, goço bat,
(Hel nadila harat) !

Edo
Ifernu bat,
Erretze bat
Seculacotzat ;
Munduac
Ah ! sura narama,
Yaincoac
Bere loriara :

Guero
Ah ! mundua !
Ene arima !
Ni norat noha ?

Hemen,
Mundutican
Ez dut içan
Bethico aguintzarie ;

Hemen,
Mundutican
Ez dut içan,
Moment batean,
Bethicotz
Iraunen duenic,
Nihongotz
Ez da çutan baicic.
Hemen
Yauna, hula
Cerc narama
Oro galtzera ?

Errac,
Ifernuan,
Tormentetan
Hagoen tristea,
Errac,
Ifernuan,
Tormentetan
Haicena sutan :
Erraguc
Cerc hauen hortara,
Eta guc
Hirriscu duguna :
Errae
Nola bada
Haicen horra,
Çori hortara ?

Helas !
Erranen dut,
Bai aithor dut
Çorigaitza cer den !
Helas !
Erranen dut
Bai aithor dut
Nere falta dut ;

Munduan
Ceren lakhet nuen :
Ceruan
Gosturic ez nuen :
Helas !
Posible da ?
Bai, çoróa !
Huna galdua !
Helas !
Cer çorigaitz !
Cer jasan gaitz
Hartzeco gogoan :
Helas !
Cer çorigaitz !
Cer jasan gaitz !
Gaitz gucien gaitz ;
Ondicotz !
Su lamén erdian
Bethicotz
Erre beharrean.
Helas !
Ez orhoitzen,
Ez phenxatzen !
Oi, ni cer naicen !
Yauna,
Aithor dautçut,
Mereci dut,
Ah ! puni naçaçun ;

Yauna !
Aithor dautçut ;
Mereci dut ;
Hutz bera eguin dut.
Eskerrac
Ceren utzi nauçun,
Handiac
Oi, galdu ez nauçun :
Yauna,
Hitz darotçut,
Cinez dautçut ;
Damu handi dut.

Lurra,
Axeguinaç,
Bai placerac
Ditiat hastandu ;
Lurra,
Axeguinaç,
Bai placerac,
Heurei eskeintzac.
Cerura
Nahi diat heldu,
Bidea
Hartaracotz hartu ;
Lurra,
Gurutzea,
Bai nekhea
Diat gostua.

PREDICU AITZINEAN.

Aire hunen gainean : *Je viens à vous.*

HEDA, Yauna, heda çure arguiac,
Çue arguituz, har detzagun eguiac ;
Guiçon, lagun eman daucuçunac
Argui nola gaitçake, gu guiçonac ?

Arren beraz çaçü susta, gori
Egun huntan duguna predicari;
Berac, çure suaz berotuac,
Gure baithan utz gaitzan sustatuac.

Bera, guri, haux, erdira çatçu
Bihotz hotzac : eerrorrec badakiçu
Cembat christau diren hondatuac
Bekhatuan, eta sorhaitotuac.

PREDICU ONDOAN.

Aire hunen gainean : *Mon Doux Jésus.*

Jesus ona,
Noizbeit çure oinetan,
Gure huxez gaude ahalketan.
O çorigaitz handiena!
Arhuiatu çaitugu,
Jesus ona.

Aita ona,
Othoi, hel çaizkigu :
Dugu, hélas ! mereci gaztigu;

Bainan çure bihotz ona
Ah ! urrical bekigu,
Aita ona.

Seculacotz,
Cinki hitz dautçugu,
Bekhatuac utzico ditugu;
Çure legue sainduracotz
Dire gure botuac
Seculacotz.

HAMALAU ESTACIONETACO

GURUTZE SAINDUARI

HAMABORTZ PHERXU.

Aire Itzautzea.

GURUTZEAREN bidea
Dugun eguin, Cristau maiteac;
Salbamenduco bidea
Ideki daucu Gurutzeac. (*bis*)
Gurutzea (*bis*) beraz bethi
Deçagun lauda goraki.

Bethire laudorioac
Bitu gurutzeac gu ganic,
Baicaitu Yainco-Semeac
Erosi, guretzathan hilic.
Gurutzea beraz.....

Aldare haren gainean
Ofritu da gure bietima ;
Bai, Yesusen odolean
Han garbitu gure arima.
Gurutzea beraz.....

Gurutzeari itzatua,
Jesus maiteac gure gatic
Garaitu du ifernua,
Bicia emanic gogotic.
Gurutzea beraz.....

Arbola baten fruituaz
Helas! guciac guinen galdu.
Hunec ekharri daucunaz
Oro, nor bagare, salbatu.
Gurutzea beraz.....

Ceruco çucen guciac
Galduac gunituen, helas!
Haraco bide guciac
Ideki çaizeu Gurutzeaz.
Gurutzea beraz.....

Ilhumberic lodienac
Orotarie gunituen hartu ;
Iguzkiric ederrenac
Oro gurutzetic arguitu.
Gurutzea beraz.....

Khelderra beçala belztu
Gunituen gu bekhatuac ;
Bainan osoki churitu
Gurutzean ichuri odolac.
Gurutzea beraz.....

Çor ecin pagatuzcoa,
Yaincoari guinioena
Gurutzean pagatua.

Içan da çütaz, Yesus ona.
Gurutzea beraz.....

Çor hura ecin pagatuz,
Behar nintzen erre ondicotz;
Yesusec han satisfatuz,
Eguin nau dohaxu bethicotz
Gurutzea beraz.....

O Gurutze sacratua !
Nere esperantza da çutan,
Çutaz erresketatua
Çeren naicen munduhunetan.
Gurutzea beraz.....

O ! Yesusen bihotz kharxu,
Guretzat guciz idekia !
Gurutzean guciz dugu
Ikhusten oi ! çure gaindia.
Gurutzea beraz.....

Cer deiteke beraz, Yauna,
Ah ! çuc odolstatu ondoan,
Gurutzea bada emana
Gure gogotarie campoan !
Gurutzea beraz.....

Gurutzea laudatzean,
Ez gare mintzo haren çuraz ;
Yesus dugu bihotzean,
Guretzat han hil den ariaz.
Gurutzea beraz.....

O bandera sacratua,
Çu çaituguno aitzinean,
Non baiditake gudua,
Bethi gaitezke bitorian.
Gurutzea beraz bethi
Deçagun lauda goraki.

MUNDUCO GAUCEN.

FUNX-GABETASUNA.

Aire hunen gainean : *Tout n'est que vanité.*

Ez da mundu huntan,
Ez hunen aguintzetan
Behinere aurkhitzen
Çorion falxoric baicen :
Bethi da gueçurti
Atzematen,
Halere bethi
Edireten
Ditu guiçonac,
Fidatu nahi çaiçonac.

Lore eta liliac
Nola tu iguzkiac
Goiz-aldean çabaltzen,
Arrax berean mudatzen ;
Hala da guiçona
Gambiatzen,
Haren adina
Da sunxitzen :
Yaio deneco
Han da arrasta hiltzeco.

Mundutar arinec,
Ez gazte libertinec
Ez darotet aguintzen
Axeguin goçoric baicen ;
Bainan pulumpatu
Banaiz hetan,
Ez dut aurkhitu
Gucietan
Deus funxezcoric,
Deus axecabez bertzeric.

Hil behar guiçonac
Alfer tu ontasunac,
Diru nekhez bilduac,
Urre eta cilhar multzuac ;
Liteken nihoren
Behar gabe,
Mundu beraren
Balitz yabe,
Hil eta çaio
Gathabut bat gueldituco.

Guiçon aiphatuac,
Handi ohoratuac,
Çuen titulu gorec,
Ez eta çuen ohorec,
Ez dute hiltzetic
Beguiratzen,
Nihor hobitic
Guibelatzen ;
Hari itzurtzeco,
Handi sortzea ez da asco.

Gaur dohaxu dena,
Urrea dariona,
Inguratua pobrez,
Haren amoina beharrez,
Biharcotz daiteke
Eroria,
Baieta eske
Ethorria
Bertzen atherat,
Sobra cembeit galdetzerat.

Atzo gaichtaguina
Ikhusi dut igana
Cedro berez gorago,
Hurren hedoietaraino ;
Ordean iragan
Naiceneco,
Nihor ez cen han
Guehiago ;
Içan cen ere
Ez cen seinale batere.

Cembat Alexandrec,
Cembat bertze Cesarec
Bere harmen indarrez,
Bere garhaiti ederrez,
Ez dute leihorra
Mintzaraci,
Ixasoa bera
Emaraci ?
Eta azkeneco
Harrac dituzte ondoco.

Guiçon yakinxunac,
Eta escolatuenac
Cer du bada probetchu,
Duelacotz izpiritu ?
Ez badu yustuen
Sinhextea,
Eta sainduen
Berthutea,
Deusiz ez çaió
Cerucotz baliatuco.

Guiçonen çorthea
Eta heien ephea
Yaunac bakharric ditu
Bere escutan guelditu :
Berac du ozpina

Phitz-arazten,
Eta guiçona
Du herrauxten
Har bat beçala,
Guti gogoan duela.

Ez du ez pobreric,
Ez aitoren-semeric
Herioac berezten,
Urricariz guphidexten :
Bethicotz lurrera
Yauxi behar,
Harren balxara
Gaurtic bihar
Dire guciac,
Chumeac eta handiac.

Ez du beraz ceren
Gazteac gorphutzaren
Hari mainaz ekhartzen,
Eta ederki aphaintzen :
Noiz ere baidoha
Ilkhitzera,
Axeguin bilha
Mundu-pera,
Duke bethea
Bere egunen ephea.

Gure funx-gabea,
Gure dohacabea !
Uste badugu içan
Dohaxu behere huntan :
Ceruan da bathzen
Çoriona
Deusec guthitzen
Ez duena ;
Yainco bat deino,
Bethi içanen dena oso.

ANDREDENA MAGDALENA

ETA MUNDUTARRAREN ARTECO SOLHASA.

Aire Itzautzea.

CEREN bilha çabiltza,
Andre Madalena?
Cerc hola çaramatza
Desertuan barna.

Yauna galduz gueroztic
Ez dut placerican;
Gauça guciac ditut
Higuin mundu huntan.

Cer tracetacoa da
Çuc dioçun Yauna?
Indaçü cembeit marca,
Ene Andre ona.

Hura da churi-gorri,
Aita-amen bakhoitcha,
Yainco-guiçon eguina,
Eta ene bihotza.

Gurutzeficaturic,
Ez duçu aditu
Yuduec nola çuten
Sepulturan sarthu?

Neronec ikhusi dut
Amaren aldean,
Ene gatican hila
Gurutze batean.

Cer esperantza duçu
Beraz haren ganic,
Infame baten guisa
Hil denaz gueroztic?

Oi! ene Yaungoicoa;
Ceru lurren Yauna,
Mundua guarda çaçü,
Ez naçan engana.

Oi! Andre Madalena,
Ez çaitela trompa;
Oraino har eçaçu
Leheneco pompa.

Hire pompa liçunac
Sobra seguituric,
Ongui niagoc orai
Urrikiz betheric.

Guruzeco penetan
Gambiatzen nauçu;
Ene placerac hola
Mespreçatzen tutçu?

Gurutzean tut orai
Ene axeguinaç,
Yaunac hartuz gueroztic
Han ni gatic penac.

Utzaçu gurutzea,
Çato enekien;
Desertuan ez duçu
Yauna causituren.

Nigar eguinen diat
Hic eraguin faltaz;
Menturaz causituren
Yauna bide huntaz.

Ceruetara guan cen,
Ez çare orhoitzen?
Aitaren escuinetic
Ez da apartatzen.

Cein haicen gueçurtia
Hor duc eracuxten;
Orai huen infame
Bat cela erraiten.

Nigarrac behar dire,
Badakit, horrentzat;
Ordean askico da
Hiltzean ihintz bat.

Dembora sobra diat
Hirekien galtzen;

Baniohac mortura;
Ez duc mintza ceren.

Oi! Andre Madalena,
Hitz bat adičaçu;
Bakharric ez baçohaz,
Ni galduco nauçu.

Adios seculacotz,
Mundu gueçurtia;
Nitan aguertuco duc
Hire tromperia.

Non çarete, mortuco
Ihici tristeac?
Çatozte ene gana,
Dolorez betheae.

Presta datçue fite
Oi! çuen nigarrac,
Garbi detzadan ongui
Eguia tudan faltac.

Çu, ene churi-gorri,
Aita-amen bakhoitcha,
Çu ikhus arteraino,
Hemen dut egoitza.

BATHAIOCO ABANTAILAC

ETA AGUINTZAC.

Aire hunen gainean : *Oi! cer ogui dut.*

ALTCHA, goacen Bathaioco
Ithurri sacatura,
Christau eguin guineneco
Botuen berritzera,
Arnegatzen dut,

Bihotzez dut
Satanez behin-bethicotz uk-
hatzen,
Cerua, lurra lekhuco hartzen,

Sortzeae ekharri çautan
Arrastaren hauxteco,
Yaunaren leguea eman
Citzaitan bethetzeco.
Arnegatzen dut.....

Ardiexteco bicia,
Bermez nautçun hitz-eman
Nuela legue gucia
Idukico demboran
Arnegatzen dut....

Botu haukien ondoan,
Apheça cen alchatu,
Ene ganic laster çohan
Satan çuen manatu.
Arnegatzen dut.....

Gurutzearen seinalez
Çautaten irakhaxi
Behar nuela gurutzez
Cerua ardiexi.
Arnegatzen dut.....

Gatzac çautan seinalatu
Berthuteco yaidura ;
Nic ordean besarcatu
Debruaren bandera.
Arnegatzen dut.....

Templu sainduan sartzera
Ninduten guero utzi,
Oçarren çori-gaitz bera (1)
Nuen arren mereci.
Arnegatzen dut.....

Eliça bethean nintzen
Exai eguin Satanen ;
Ordean ene aguintzen
Bethi hari naiz hauxten.
Arnegatzen dut.....

Ez behin, bai hiruretan
Çaitauean galdetu
Arnegatzen bada dudan,
Bai-etz dut eguin oihu.
Arnegatzen dut.....

Trinitatea goraki
Nuen guciz aithortu ;
Cembat moldez agueriki
Ez dut guero ukhatu ?
Arnegatzen dut.....

Bathaiatu aitzinean
Satan cen ene nausi ;
Ura ikhusi çuenean,
Laster cen goan ihesi.
Arnegatzen dut.....

Ur saindu harc khendu çautan
Aita-Adamen hobena ;
Chrismac berehala eman
Guiristino icena.
Arnegatzen dut.....

Soin churia nuen yauntzi,
Ceren nuen exaia
Bere armaçoinaz bilhuci,
Eremanic garhaia.
Arnegatzen dut.....

Ezco bistuac çarotan
Fedea seinalatu,

(1) *Apocal. 22.*

Ceinac gure obra onetan
Bicia behar baitu.
Arnegatzen dut.

Trinitate saindua cen
Nitaz guciz hartua,
Ene arima hain baitzen
Eder, berregiindua.
Arnegatzen dut.

Aitac bere haur maitetzat
Bertzetaric hautatu;
Semeac primu laguntzat
Ninduen aldaratu
Arnegatzen dut.

Bere egoitza çuen hartu
Nitan Izpirituac;
Halaber ciren bekhaiztu
Orduti ifernuac.
Arnegatzen dut.

Alfer Satan errabian,
Bere arte galcorrez,
Dabila ene inguruan,
Ni atzeman beharrez.
Arnegatzen dut.

Bekhaitz ene ongui içanaz,
Galdu nahi ninduke :
Bainan Yesusen icenaz,
Garhai içan naiteke.
Arnegatzen dut.

Munduac bere pompekin
Ez nau lilluratuco,
Haraguiac placerekin
Ez nau, ez beretuco.

Arnegatzen dut,
Bihotzez dut,
Satanez behin bethicotz uk-
hatzen,
Cerua, lurra lekhuco hartzen.

COMUNIONECO ACTA.

Aire Itzautzea.

HUNA Jesus, bildox amulxua,
Gure gatic Sacrificatu dena;
Bekhatutan baçare, Christaua,
Goardia ungui, ez hurbil hunengana.

Yauna, çure errecibitzeco
Behinere ez naiz digne içatu;
Bainan ene ongui sendatzeco,
Çure hitz bat askico da; erraçü.

Erran duçu janhari çarela ;
Çure gana, Yesus ona, naiz heldu ;
Badakiçu menturatzen naicela,
Ceren nauçun ceronec gombidatu.

Aldarean dago Yesus ona,
Oguiaren iduriz goibelduric ;
Beguiz ikhus ez deçakedana
Maitatzen dut, hor dela sinhexiric.

Orai Yesus ene bihotzerat
Ethorri çait ; hau da besta handia !
Yaunac bere gorphutza yaterat
Emandio guiçonari gucia.

Ah ! cer esker bihurturen dautçut ?
Cembat maite nauçun hemen da agueri,
Ordainez nic maitaturen çaitut,
Mundu huntan bici naiceno, bethi.

Yesus ona, cer galdetzen duçu ?
Hemen naiz prest çure obeditzera ;
Bihotza çuc ikhusten dautaçu ;
Bortchaçaçu çure cerbitzatzera.

Ez naiz, Yauna, çu gabe deus ere ;
Haraguiac bethi nau bentzutueco ;
Ene baithan beraz bethiere
Egon çaitte, ene sustengatzeco.

GAZTE - DANIC PRESTU

ICAITEAREN GAINEN.

Aire Hainitzen gainean.

CHRISTAU gazte maitea, çuretzat naiz mintzo ;
Adi çaçu gogotic cembeit solhas goço :
Ceruraco bidea çaitçu irakhaxten ;
Eman çaitte gogotic çu haren ikhasten.

Goiz danic behar duçu maithatu Yaincoa,
Nahi baduçu ičan bethico goçoa.
Gazte gaichtoac dire guehienac galtzen;
Aldiz gazte prestuac ceruaz goçatzen.

Demboren eguilea bide da Yaincoa,
Adin gucien ere yabe-eguiazcoa :
Hala gare harenac gaztetasunean,
Nola ecindu eta çahar garenean.

Hortic badacusagu gure eguinbidea,
Iduki behar dugun bicitze moldea :
Yaincoa behar dugu oroc cerbitzatu,
Haren legue saindua bethi beguiratu.

Nola bada, gaztea, haiz errebelatzen,
Yaunaren cerbitzutic cerc hau aldaratzen ?
Debrua duc hautatzen nausitzat, çoroa;
Utziric hire yabe çucen bidezcoa !

Eçagut eçac ongui hire esker gaichtoa,
Cein minki damuztatzen ducan Yaun-gaincoa :
Haren emaitza berez hi haiz baliatzen,
Hari guerla eguile batzuen laguntzen.

Biciaren lorea da gaztetasuna,
Adin gucietan den preçatzecoena :
Gaizkira makhur bedi, ez daki non bara ;
Ongaira itzul bedi, ah ! cein den suharra !

Gazteac dire çalhu, bici eta kharxu ;
Çaharrac berriz gogor, uzcur, nagui, pisu.
Hec uda didurite bere-egun lucetan ;
Hauc aldiz negu latza itzhotz, hormatetan.

Exaiarentzat bada ičanen othe duc
Hire adin hautua, gaztea, erraguc ?
Yaincoarentzat daucae, ah ! bihotz gogorra !
Bekhatutan iragan egunen ondarra.

Çainen çorigaitza duc bada ahantzi,
Çikhoitztasunac nola çuen galaraci?
Lurrac eman ontasun picainac gorderic,
Yaunarentzat bereci cian tcharretaric.

O çu, gazte çuhurra, Abeli çarraizco,
Yaunaren arraicien çure-ganatzeco;
Harc beçala emotçu bildox guicenenac,
Çure bicico egun diren ederrenac.

Behin badu ixutzen mundu çoratuac,
Gogorki amarratzen yaidura galduac,
Garrazki pagatuco ditu axeguinaç
Hec hartuco dituen gazte çoro-arinaç.

Cer gudu, cer borroca, cer guerla gogorra,
Funxki utzico bada aztura çaharra!
Bicitzez aldatzeac ecina diduri;
Estira behar çαιο eman bihotzari.

Mairu beltza nekhez da churi bilhacatzen;
Gaizkian ohitua hain gaitz da centzatzen.
Gaztea harri bedi, Yauna baita mintzo;
Ohitza gaichtoari beguira bioço.

Usantza ah! garhaitzen balute, bortchatuz,
Gudu eta borrocaç azcarki bermatuz!
Osoki baletzate utz bere gaizkiac,
Yaunac ahantz letzake iragan guciac.

Bainan ez, bekhatutic ez dire hastantzen;
Ondoan guehienac hartan bai fincatzen.
Hasi beçala dute osatzen bicia:
Dohacabe hec galtzen bethico loria.

Miracuiluz bicia nahi bada aldatu,
Cembat campoco traba, cembat nekhe, gudu?
Usantzaren gatheac ecin phorroscatuz,
Yaidura nausituac bethi muthirituz.

Bekhatoreac noizbait haux betza gatheac,
Halere haren grinac ez dire chumeac ;
Ecin yakin deçake ea bekhatuac
Yaunaren aitzinean çaiçon barkhatuac.

Oi ! cer' erhokeria, ikhusac, gaztea,
Cembeit urthe bakharrez axeguin hartzea !
Bertze egunac bada nahi tue iragan
Bihotz herxtura eta nigar, aubenetan.

Bainan prestutasunac, Yauna maitatzeac,
Bere arima bethi garbi-idukitzeac
Eguiten dic, Christaua, bake-eguiazcoa,
Munduco axeguinac ez beçalacoa.

Gazteric Yaincoari çaiçoenac lothzen
Haren bihotz samurra du bereganatzen :
Adin lerracor hartan ceren beita prestu,
Yaunaren axeguinac hartaz eguiten tu.

Hala ceruco dohain berez-bereciac
Gazte prestuarentzat ditezke guciac :
Haren urthen lorea Yaincoac içan du ;
Aldiz Yainco beçala saristatuco du.

Mundu guciac ere choil da onhexia,
Gaichtaguin burlariez maiz ederrexia ;
Bere ariman dute guciec preçatzen,
Bai eta guehienec gogotic altchatzen.

Bician badukegu hainitz ikhusteco,
Ondico, nahigabe franco yasaiteco ;
Arin ditu prestuac guciac aurkhitzen,
Ceren Yaun onac baitu handizki laguntzen.

Hiltzea çαιο gogor gazte galduari ;
Aitzitic goço, ezti prestua denari :
Iragan biciac du hura ikharatzen,
Grina gabe prestua bakean da hiltzen.

Gaztea, ibil hadi oraitic prestuki,
Mugaric ez denean ez ducan urriki ;
Urrun lagun airatu mundutarretaric,
Nahi ez baduc hartu hekien cuxuric.

Onhex eçac etchea, bicitze gordea ;
Ichiltasuna, lana, hire eguinbidea :
Harraico othoitzari, iracurtzeari,
Iracurriac gogoan erahiltzeari.

Sacramenduetara hurbilduz arthoski,
Hire chede onetan egonen haiz tinki ;
Hetan çaizkic emanen dohain bereciac,
Errechki garhaitzeco hire exai guciac.

Bekhatua delacotz gaitz gucien gaitza,
Harentzat içan-eçac higuintzen higuintza :
Hartaric bethiere beguirauc arthoski ;
Bici haiceno, hortan berma hadi tinki.

Çuc, ô Yesus maitea, gure yabe ona,
Yende gazte prestuac hain maite tutçuna,
Eguiazco prestuac bethi çateu lagun,
Bere chede onetaric ez daitecen urrun.

Gazte errebelac ere tutçu urricari,
Heientzat-ere duçu odola ichuri ;
Sunxi-etzatçu, Yauna, hekien ilhumbeac ;
Bai phorrosca lothuac dauzcaten gatheac.

YUIAMENDU YENERALAZ.

Aire hunen gainean : *Foudres, éclairs.*

ADITZEN da trompeta latzgarria,
Ethorri da Yaunaren eguna,
Egun triste, egun loxagarria,
Bai egun gucien handiena.

Ihurtziri eta chimista pean
Lehenago Yauna mintzatu cen;
Bainan egun bere mayestatean
Handiago guciei aguertzen.

Aspaldi lur bihurtu haraguiac,
Erhauxtuac ciren heçurretan
Osaturic, instant batez guciac
Phizten dire, chutituz batean.

Aingueru onec ematen dituzte,
Merecitu duten eredura,
Gaichtaguinac eta onac bi parte
Yesus Christoren bi aldetara.

Hobendunac ezkerreco aldetic
Ikhusten du Yuie hasarrea;
Eta onac Yaunaren escuinetic
Bake osoaren beithartea.

Errabian, ahalkez estaliac,
Gaichtaguinac marrasketan daude:
Non çarete, lurrac eta mendiac?
Othoi, hemen sunxi gaitzatçue.

Ifernuac, eñraiac idekiric,
Diotzote, irex baguinitza!
Bainan egun Yaunaren beguietarie
Ez diteke ah! nihor gueriça.

Orduraino gordeac egon diren
Crima beltzac eta ixusiac
Aguertzen tu gucien bistan hemen,
O Yesus! çure argui biciac.

Ilhumbetan, bakharric secretuan
Eguin crimac han aguertzen dire;
Bihotzean eta izpirituan
Eguin içatu direnac ere.

Bicioac berthutearen capaz
Estaliric, munduaren bistan
Enganatu gaituzten hipocritac
Emanen dire orduan arguitan.

Gaichtaguinac bere crimen laidoa
Hain handia edireten badu,
Emanen den arrasta bethicoa
Ah! nola beharco du aditu?

Çohazkidate, ah madaricatuac!
Çohazkidate urrun ene ganic!
Seculaco surat condenatuac,
Çohazte erretzerat orai danic.

Berthutea calomniaz belztua
Orduraino egon balimbada,
Egun hartan ohorez gainditua
Goraki laudatua içanen da.

Egarriac, goseac, bilhuciac
Mundu huntan ibili direnac,
Egun hartan espos soinez yauntziac
Sasiatuco ditu Yaun onac.

Itzultzen da escuineco alderat,
Arraituric, Yaunaren bisaia,
Ichurtzen du yustuen bihotzerat
Oi! cer bozcariozco hibaia.

O! cer goço aditzean : çatozte,
Ene aitaz benedicatuac,
Har çaçue ene lorian pharte :
Han dire çuen khoro, tronuac.

Istantean cerua da çabaltzen,
Ta yustuac, arima eta gorphutz,
Bozcarioz gaindi dire alchatzen,
Içaiteco han bethicotz hurus.

Oi! egun segur beçain latzgarria!
Cein aldetan ikhusi behar nauc?
Bekhatoros hain lastimagarria!
Ikhusgarri hortaz bai hiri çauc!

BEKHATOEAREN ÇORTHEAZ.

Aire hunen gainean : *Depuis longtemps Dieu t'appelle*

Oi! cein den çorthe tristea,
 Bekhatorea,
Oi! cein den çorthe tristea
 Phenxaçac maiz
Bekhatuan bicitcea,
Salbatu nahi bahaiz.

Yaun goicoaz gaitzexia,
 Haren exaia,
Yaun goicoaz gaitzexia,
 Erreboltan
Deramac hire bicia
Tristeki mundu huntan.

Soseguaz gabetua,
 Asaldatua,
Soseguaz gabetua
 Haiz aurkhitzen;
Gathibo bilhacatua,
Cer estatutan haicen!

Hire goçokerietan,
 Axeguietan,
Hire goçokerietan
 Bihotzerat
Heldu çaic bethi betbetan
Cerbait asaldatzerat

Herioaz orhoitzean,
 Guti ustean,
Herioaz orhoitzean
 Cer laztura
Ez da hire bihotzean,
Hobenen eredura!

Ez balitz deus beldurtzeco
 Bertze munduco,
Ez balitz deus beldurtzeco :
 Bainan Yaunac
Surat ditic aurthikico
Criman hiltzen direnac.

Phenxaçac, dohacabea,
 Hire ephea
Phenxaçac, dohacabea,
 Hurbil dela :
Luçaro bici ustea
Egun hil ditekela.

Bethi guerorat utztea
 Combertitzea,
Bethi guerorat utztea
 Duc ondicotz
Norbeit salbatu gogoa
Galtzea seculacotz.

Ez due ez biharamunic
Seguraturic ;
Has hadi has egun danic
Gambiatzen,
Bekhatua kitaturic,
Barkhamendu galdetzen.

Salbatzaile amulxuac,
Hire Yaincoac,
Salbatzaile amulxuac
Hau bilhatzen ;
Egun darozkie besoac
Hain maiteki hedatzen.

Haren ontasun handiaz,
Haren graciaz
Ez bahaiz egun lehiaz
Baliatzen,
Laster bere yusticiaz
Hasico due obratzen.

Bihotz humiliatuac,
Doluz çaurthuac
Salbatzaile amulxuac
Onhextentic ;
Eta hekin bekhatuac
Ahantzten, barkhaturic.

HIL BEHAR NAIZ

ETA YUIATUA IÇAN.

Aire hunen gainean : *Çuen heriotzeaz orhoit
bacinete.*

BEKHATU gaichtoari ihes eguiteco,
Bide ceihar gucien bethicotz utzteco,
Gogoan har detzagun gure azken finac :
Hala goanen çaikigu gaizkiraco minac.

Arrogatzerat nola ichilic etchetan
Sartzen dire ohoinac aberaxenetan,
Herioac halache gaitu atzemanen,
Bai bicien artetic helas! eramanen.

Lurrez eguin gorphutz haue, gathabot barnean,
Bizcarretan harturic andetan airean,
Orduan bai goanentac lurperat deithoraz,
Daudela minduruac nigar heiagoraz

Har, chichari nabarben, gősez hiratuac,
Gure haragui, heçur haukien nahituac,
Han ciaudec çuphuan gure irexteco,
Gucietaric colpez gaitie hasico.

Suyet, erregue, printze, chume, handientzat
Horra cer dagon thumban gure gorphutzentzat.
Gorphutzen hil ondoco aiphamen horiec
Latzturican aditzen tutçue guciec.

Thumbacoez bertzeric ez balitz guretzat,
Achola guti nuke nic segur behintzat :
Tribuual bat badugu mundutic lekhora,
Han hobendun bagare, oi! cer heiagora!

Yesus Christoc daucu han contu galdetuco ;
Gauça guciac ditu chuchen phisatuco :
Hitzez, obraz beçala çuec, gaichtaguinac,
Aurkhituco tutçue han gogoz eguinac.

Ealta mortal bakhar bat, ô bekhatorea !
Hire condenatzeco, atzarçac fedea,
Askico dukec. Helas! milaca eguiten
Dituc hic; eta ez haiz batere loxatzen.

Lokhuma triste hortan bethi ehortzia
Bahago; hire contra oi! cer sententzia
Heriotzean, Yesus coleran yarriac,
Emanen dauian! Açi, çabal beharriac.

Aparta ene ganic, desobeditu nauc,
Arima criminela; harzkic ongui hitz hauc :
Oha seculacotzat ifernu çolarat,
Deabruarentzat phiztu su lama hetarat.

Iharrosiac, Yauna, sententzia hortaz,
Galdetzen darotçugu duçun arren gutaz
Urricalmendu handi; bertzenaz akhabo;
Ifernuan guintezke bethicotz gathibo.

Punituco ditugu hemen gogo onez
Gure buru propiac ditugun hobenez.
Penitentzia, Yauna! Ah! hel çakizkigu;
Çure odola, othoi, balia bekigu.

Bekhatuac borratu dituzkegunean,
Deith gaitzakeçu guero, nahi duçunean,
Çure tribunalera, handie alchatzeco
Çurekien cerurat, çutaz goçatzeco.

DAMNATUEN

AUHENAC IFERNUAN.

Aire hunen gainean : *Helas! egun batez.*

NIGAR marrasketan,
Arima damnatuac
Lece eternaletan
Bethicotz hondatuac
Daude; aditzagun
Heien boz sarcorrac;
Ongui har detzagun
Heien errecurac.

Yaunaren colerao
Azpian gaitu hartu;
Lurreco demborac
Guintuen emplegatu
Bide galduetan;
Orai gare hemen
Ah! çori gaitzetan
Bictima su lamén.

Bai hemen kharpean,
Cerurat guintezkenac,
Ah! tormentapean,
Dohacabe garenac,

Gaude; eta hula
Menderen mendetan
Egonen garela
Yakin nigar hautan!

Cer ondore duten
Gure banitateec!
Certarat gaituzten
Gure libertateec!
Axeguin cikhinac
Lakhet citzaizkigun;
Su lama saminac
Orai irextzagun.

Oihuz çagozkigun
Çure predicariac;
Ah! ceren ditugun
Tapatu beharriac.
Çure yusticiac,
Yauna, lece huntan
Gauzea eçarriac,
Bethico penetan.

Çure contra guinen
Mundutar lagunekin
Tropaca alchatzen,
Oi! cer furiarekin!
Hox, mendeca çайте;
Bai yustu da, Yauna;
Guretzat ez daite
Hemen sobra pena.

Ez, ikhusten dugu,
Çure ozpin guciac
Mereci ditugu;
Oi! nola çuc haiciac
Eskergabe beltzac,
Çutaz trufaturic,
Iduki bihotzac
Tugu lohituric.

Madaricaturic
Sacramendu handia
Ezcontzan harturic,
Guindaucuten bicia
Eman burhasoec;
Oi bada! certarat
Çuen bicioac
Gaitu su hautarat!

Hunela galtzecotz,
Oi çuec, aita amac,
Hunat egortzecotz
Helas! gure arimac,
Certaco han harat
Bathaio saindutie
Ez egor thumbarat
Bicien artetic.

Hic ni galdu nauc, hic,
Mundutar bolatua;

Yaunac beharco die
Doblatsu ifernua!
Hire punitzeco
Eman escandalez,
Hiri yaçartzeco
Bere ahal doblez.

Hemendie mundurat
Ahal baguin-dohazke
Bicien balxarat,
Ah! cer ez guineçake
Eguin? desertuan
Ur eta belharrez
Bai bici orduan
Guintezke, beldurrez.

Hox bada, Christauac,
Hemen ikhusaçue;
Egunekin gauac,
Han nahi dituçue
Urtheac mendekin,
Deithora min hautan,
Reprobatuekin
Eraman lecetan?

Çuri dauzkitçugu
Behar eskerrac eman;
Çuri çor dauçugu,
Yauna, ez baicare han,
Ifernueoekin
Nigar marrasketan,
Balxatuac hekin
Hekien penetan.

Orai hemen, Yauna,
Misericordioski,
Ah! gorphutz hau unha
Nahi beçain garratzki;

Açurriatuac,
Munduan garenô,
Toleya gaitzatçu
Heriotzeraino.

Nigar aubenetan,
Gure hoben handiac

Egun saindu hautan
Borraturic guciac,
Guero handie goiti
Egonen aguian
Ah! guintezke bethi
Bai çure gracion.

DOHAXUEN CERUCO GOÇOAZ.

Aire hunen gainean : *Bicio bat orotarar.*

YAUNAC gauzca mundu huntan
Hemendican Cerurat
Bereganañ hartzecotan
Dohaxuen balxarat ;
Alchateçagun arren boçac,
Canta errepiketan,
Boçekin yunta bihotzac
Ceruraco hoxetan.

Bekhoz bekho çaitugula
Hurranic ikhusico,
Çu baithan ez daucuçula
Deus ere estalico,
Yainco handia, miletan
Darocuçu aguintzen ;
Bethi çure aguintzetan
Çare chuchen aurkhitzen.

Gure ilhumbe lodiac
Dire hor sunxituco ;
Çue aguertu bekhohiac
Gaitu hor arguituco.
Argui suerthe guciac
Eguia guciekin
Ditezke gure arguiac
Çu ikhustearekin.

Ah! guiçonec balakite
Cer çorion guretzat
Daucaçun hor, ez litezke
Hain flotch creaturentzat ;
Hemengo placer laburrac
Khirax litzaizcokete :
Desira osoen kharrac
Horracotz lituzkete.

Goço suerthe guciac
Golkhotican golkhorat
Yaungoicoac ichuriac
Dohaxuen baitharat ;
Behin ere hux arteric,
Hibaiaz çurrutaca ;
Ez etare gutitzeric,
Han dohaz uholdezca.

Cer ikhusi du beguiac
Egundaino munduan,
Cer aditu beharriac,
Çabaldu den orduan ?
Asma ez daite deusican
Orai hemen lurrean,
Ez eman daitekenican
Hango onen aldean.

Çu çare gure egoitza
 Ècin asmatuzcoa,
 Yaunaren azken emaitza,
 Bethi goçatzecoa,
 Gorphutz hilkhor hau utziric,
 Arima hauc hor gora
 Dohacenean garbiric
 Lur huntaric, ochala!

Gutaric bakhotcharentzat
 Khoroa, tronu bana
 Berthutearen saritzat
 Ah! hor daucaçu, Yauna.
 Khoru, tronu distiantac,
 Çuen ardiexteco,
 Fedezco moyan puchantac
 Tugo bethi hartuco.

Lur huntaric altchaturic
 Çure beso eztez,
 Guero çuc khorouric
 Çure escu garbiez,
 Noiz, Yauna, gure buruac
 Tronu gain horietan
 Deitezken çutaz hartuac
 Gaude maiz suspiretan.

Lurrean hemen ditugu
 On-gaitzac nahasteca;
 Gauça guciac çaikigu
 Guerthatzen aldarteca;
 Nahaste, ez mudantzariç
 Ceruan hehinere :
 Bai on guciac bilduric
 Han tuzte bethiere.

Orai beraz non gabiltza,
 Sasiatu beharrez
 Lurrean gure bihotza
 Placer galkhor ederrez?

Ceruan daude guretzat
 Axeguin bethicoac;
 Hox bada! beithez hekintzat
 Gure nahi osoac.

Cerurat nahi badugu
 Ah! guriki biciric,
 Exi ahal deçakegu;
 Han ez da halacoric.
 Bici saindu, penitenta
 Eramaten dutenac,
 Deitezke, Yainco puchanta,
 Hor hartuco tutçunac.

Ixaspean dabilzanec
 Desiratzen portua,
 Desterratuac daudenec
 Bere yaio lekhua :
 Ixaso tempestaxua
 Egoitza hau guretzat ;
 Desterru ondicozcoa
 Christau fededunentzat.

Oh! çuec, çuen demboran,
 Gu gaudecen beçala,
 Cin-dauztenac heyagoran,
 Dohaxuac, ochala!
 Ah! gu ere Yaunac horrat,
 Egunac treinatoric,
 Deith gaitzan çuen balxarat,
 Desterru min huntaric.

Cembat misterio handi
 Obraturic munduan,
 Amodioz bethi gairi
 Çauden orai ceruan!
 Salbatzaile amulxua,
 Ah! çuc badaikeguçu,
 Bai, çure urricaxua;
 Çure gana gaitzatçu.

MUNDUCO LANYERAC.

YESUS LAGUN.

Bere airea.

IXASOAREN pareco
Mundu hau salbamenduco;
Chume handiac,
Garen guciac
Exaiarekin guduca
Hari, beldurric, borroca.

Untziac tempestac nola,
Satanec arimac hala
Ditu tentatzen,
Ditu behartzen,
Nahiz ikhusi galduac
Cerurat gure oihuac.

Norc ikhusi hulacoric
Exai nabarben gaichtoric?
Nihoiz bakeric,
Nihoiz pausuric;
Bethi behartzen gaituzte:
Çato, Yesus, altcha çaité.

Hel, Yesus, hel çakizkigu,
Çure beharra badugu.
Hau da çoria!
Oi cer furia!
Galtzeco traçac ditugu;
Hel, Yesus, hel çakizkigu.

Hel çaitetzela, ez loxa;
Ene ganat çuen boça,
Çuen nigarrac,
Oihu suharrac

Aditzen ditut cerutic:
Arren beira loxatzetic.

Nic ichuri sarraskiac,
Ene laguntzen bahiac,
Haragui, mundu,
Satan, ifernu

Gucien dire garhaiac
Sarraski nic ichyriac.

Sinhex-açue eguia
Ene ahotic ilkhia;
Ukho beldurric
Ez har nitaric,
Ez banauçue ukhatzen.
Ez eta ere ahantzten.

Egon zaitetzte enekin,
Nagon ni ere çuekin;
Enekin yuntki
Dagona finki

Daite goçoki hacia,
Ceruracotz berecia.

Ceru, lurreco goçoac
Ez berdin goçatzecoac;
Hauc cein galkhorrac,
Hec irauncorrac!

Orai cer dio gogoac?
Hauta, hauta cerucoac.

Tratantec, aberaxteco,
Guerlarieç, bentzutzeco,

Laceriari,
Herioari
Desafioac ematen;
Hox, christauac, erna gaiten.

Osoki dire handiac
Guretzat dauden sariac;
Gudu hautaric
Atheraturic,
Ceruco goço guciac,
Yesus onac mereciac.

Guduca beraz, guduca,

Herioraino guduca;
Balentriosen,
Bitoriosen
Prest-presta dauzca khorooac
Yaungoico soberanoac.

Mihia aho gangari
Yosia, heçur gainari
Gueldi bethicotz,
Çu ahantztecotz!
Goico-Yaunaren egoitza,
Çutan da ene bihotza.

BEKHATOREA ITZULTZEN DA YAINCOA GANAT.

Aire hunen gainean : *Orhoit hadi, bekhatorea.*

Ah ! mundu enganagarria,
Yakin banerauc berria !
Hire aguintza falxoac
Cein diren ondicozcoac
Ah ! orai diat ikhusten;
Ikhustez nauc hiratzen.

Hire lausengu ederrez,
Hire axeguin galkhorrez,
Oi hau da bada lastima !
Certara dudan arima !
Huna non dudan galdua,
Bekhatutan hondatua.

Nor darotçudan preçatu !
Nor dudan nausitzat hartu !
Ukho eguinan çuri,
Oi, Yauna, cer ikhusgarri !
Ene çorigaitz banditan,
Nago Satanen gathetan.

Hain churi nola elhurra,
Hain eder nola içarra
Nuen arima gaichoa.
Helas ! hau da gambioa !
Kheldarra baino beltzago
Bakhatuz eguina nago.

Ceruan guehiagoric
Enetzat ez da çucenic,
Non ez ditudan higuintzen,
Hoben guciac borratzen,
Penitentzia eguinez
Heiagoretan, nigarrez.

Alkhi sainduco oihuez,
Predicarien erranez
Çu ganat, Yauna, deithua,
Amulxuki hertchatua;
Heda besoa cerutic,
Heldu natzaitçu gogotic.

Ni naicen beçalacoric
Norc ikhusi prodigoric?
Harc primantza lurrecoa,
Nic primantza cerucoa
Biec ditugu chahutu;
Cembatez dudan garhaitu.

Ah ! prodigoa beharrez,
Hurren hila cen gosetez :
Ordu onean etcherat,
Aitaren besoetarat
Itzuli baitzen suharki,
Aitac hartu, cein arraiki !

Norc egundaino bestaric
Ikhusi hunelacoric!
Besoz beso besarketan,
Egonican nigarretan,
Aitac Semea aldean
Emana mahain onean.

Animo, bekhatoreac,
Ceruco Aita gureac,
Osoki combertituric,
Bekhatuac barkhaturic,
Gaitu haur maiten baltzarat
Hartuco bere alderat.

BERTHUTE PRINTZIPALEN ACTAC.

Aire huntan : *Oi! Betleem.*

Fedezco Acta.

Sinhexten dut,
Eliçac dagozcan eguiac
Sinhexten dut
Hala direla guciac.
Neronec ikhusiric baino
Harc erranic segurkiago
Sinhexten dut.

Esperantzazco Acta.

Yauna baithan
Eman dut ene fidantzia,
Yauna baithan;
Haren misericordian
Ediren uste dut bicia,
Eta salbatzeco gracia
Yauna baithan.

Amodiozco Acta.

Bihotzetic
Maithatu nahi çaitut, Yauna,
Bihotzetic
Eta gucien gainetic,
Ceren baitzare guciz ona :
Maite dut halaber laguna
Bihotzetic.

Adoracionezco Acta.

Çu bakharric
Ene Yabe soberanotzat
Çu bakharric,
Gucien creatzailletzat
Nahi çaitut nic eçagutu,
Yauna, eguiaz adoratu
Çu bakharric.

Contricionezco Acta.

Urriki dut
Eguin dudan gaichtakeriaz,
Urriki dut
Hobendun naicen guciaz :
Bihur daçu, Yauna, bicia,
Eguidaçu, othoi, gracia ;
Urriki dut.

Humiltasunezco Acta.

Ni ez deusa,
Içaite soberanoari
Ni ez deusa,
Ez naiteke ez atrebi
Ene homayen bihurtzera,
Haren tronurat beiratzera,
Ni ez deusa.

Esker onezco Acta.

Çuri, Yauna,
Bihurtzen dauzkitçut eskerrac
Çuri, Yauna;

Ceren çue ene beharrac
Ditutçun bethi sokhorritu,
Esker guciac çor çaiçkitzu
Çuri, Yauna.

Ofrimenduzco Acta.

Ez arbuya,
Yauna, ene bihotz agorra,
Ez arbuya
En-eguin ahal aphurra ;
Desiratzen dudan onguia
Çuretçat nahi dut gucia ;
Ez arbuya.

Galdezco Acta.

Eiçu, Yauna,
Ene hitz, obra, lan guciac
Eiçu, Yauna,
Gogoeta, guthiciac,
Diren çu lorificatzeco
Eta ene salbamenduco ;
Eiçu Yauna.

YAUNAREN OTHOITZA,

Tillolieren airean.

Ceru, lurrac bere hitzaz
Eguin dituen Yaincoa,
Eguin da bere emaitzaz
Gure aita cerucoa ;
Hori da beraz, Yauna ;
Hartu duçun icena
Gure fagoretan :
Publica dadila
Lekhu gucietan
Aita çaitugula.

Sainduki erabilia
Biz bethi çure icena,
Ceruco gorthe gucia
Bozcariatzen duena ;
Ez gaiten ez mentura
Banoki aiphaitzera
Hain icen saindua ;
Bainan içan bedi
Errespetatua
Orai eta bethi.

Satan, gure bihotzetan
 Ez duc hiretzat lekhurie;
 Yaunac lekhu gucietan
 Erreguinatu behardie;
 Eguiçu, othoi, Yauna,
 Ceruco erresuma
 Ardiex deçagun
 Eternitatean,
 Eta gau et-egun
 Dugun bihotzean.

Dohaxuec ceruetan
 Eguiten duten beçala,
 Desterruzco lekhu huntan
 Bakhoitchac eguin deçala
 Çure borondatea,
 Gucien eguilea
 Çarenaz gueroztic;
 Cer da yustuago
 Gucien gainetic
 Çu seguitcea baino?

Çue ordenatuz gueroztic
 Lurrari ekhar deçala,
 Ez da baratu sortzetic,
 Guiçonarentzat beçala
 Hegastin gucientzat

Eta haciendentzat
 Hekin hazcurria :
 Othoizten çaitugu,
 Behar den gucia
 Bethi emaguçu.

Gu bethi çure aldera
 Çorduru içanen gare ;
 Bainan guri barkhatzera
 Bethi ekharria çare ;
 Gue gure lagunari,
 Cerbait daucunari
 Eiten badiogu
 Misericordia ;
 Barkhatzen diogu,
 Eiguçu gracia.

Campotic eta barnetic
 Exaiez inguratuac,
 Gare ongui eguitetic
 Cerbaitez guibelatuac ;
 Çato gure sokhorri ;
 Ez othoi, Yauna, sofri
 Ofenxa çaitzagun
 Tentacionetan :
 Çaude gau et-egun
 Gure ingurutan.

APOSTOLUEN SYMBOLA.

Aire huntan : *Il faut attendre avec patience.*

Sinhexten dut Yainco aita
 Guciz botherexuan ;
 Gucien eguilea da
 Ceruan bai lurrean :

Sinhexte huntan fermuki
 Bici nahi naiz bethi ;
 Fede hau galtzen lukena
 Ez baiditeke salba. (bis.)

Sinhexten dut haren seme
Yesu Christoren baithan;
Hura da bakharric digne
Yaunetan deith deçadan;
Izpiritu sainduac du
Hura guçon-moldatu;
Maria Biryina ganic
Sorthu da gure gatic. (*bis.*)

Pilatusen manuari
Cioen obeditu,
Eta hambat sofricari
Hain humilki pairatu;
Ez çuen arren crimaric,
Gure hobenen gatic
Hil cen gurutze batean
Bi ohoinen artean. (*bis.*)

Biciaren emailea
Guretzat hil cenean,
Haren haragui maitea
Hobian çuten eman;
Gorphutzetic berecia
Arima hain garbia
Yauxi cen ilhumbetara
Yustuen arguitzera. (*bis.*)

Hirurgarren egunean
Altchatu cen biciric,
Profetec erran ephean,
Bera hillen artetic;
Phiztua da, guehiago
Seculan ez hiltzeco:
Bozcaria gaiten beraz
Haren phizte sainduaz. (*bis.*)

Cerurat higan içan da
Salvatore egunean;
Gueroztic han da yarria

Aitaren escuinean,
Guri senti arazteco
Eta irakhaxteco
Bothere bera dutela
Eta loria bera. (*bis.*)

Bera handic egun batez
Yauxico da lórrera,
Beztitua mayestatez,
Gucien yuyatzera;
Egun ikharagarria!
Oh! egun latzgarria!
Egun guçon yustuena
Ikharatzen duena. (*bis.*)

Fede beraz dut sinhexten
Izpiritu sainduan;
Hunec guciac arguitzen
Ez baguintu munduan,
Bethi errebelatzea
Laite gure çortea;
Huni yarraikiren dena
Dohaxu içanen da. (*bis.*)

Eliça catholicoan
Da ene sinhextea;
Ceren hartaric campoan
Segur baita galtzea:
Eliça bakhar bat baicic
Ez da eguiazcoric,
Yesu Christoz fundatua,
Hartaz gobernatua. (*bis.*)

Eliçaren cimenduac
Dire guciz sainduac,
Saindua da, ceren baitu
Yesu Christoc fundatu,
Eta ceren, hartaz, campo
Ez baita causituco

Ez saindu eguiazcoric,
Ez cerura bideric. (*bis.*)

Apostoluen gainean
Çuen Yaunac fincatu;
Bainan, hec hil direnean,
Ez da deus gambiatu;
Hec cituzten indar berac
Ditu orai Eliçac,
Erreguelaturic Yaunac
Nola eguin ordainac. (*bis.*)

Orotara da hedatzen
Eguiazco Eliça,
Eta bethi du iraunen,
Ez daiteke gueriça;
Menden akhabantzarain
Mundua mundu deino,
Ez du deusec mudaturen
Edo ezeztaturen. (*bis.*)

Progotchoski sainduekin
Dugu comunicatzen;
Hekin othoitz, ongui-eguin,
Ardiexi dituzten
Gracia eta fagore,
Gucietan gu ere
Partalier, nahi bagare,
Gombidatzen gaituzte. (*bis.*)

Sinhexten dut bekhatuen
Erremisionean,
Ceren Yaunac utzi tuen,
Cerurat higaitean,
Haren botherez yauntziac
Ministro bereciac,
Çoinei erran baitzioten:
Nic çaituztet igortzen. (*bis.*)

Sinhexten dut azkenean
Gorphutz hilcor guciac,
Trompetac yo duenean,
Erhauxetic biciac
Beharco çaiçcola yaiki
Aintzinera Yaunari,
Bere obren arabera
Sententzia hartzera. (*bis.*)

Phiztuc da haraguia
Seculan ez hiltzeco,
Bethiereco bicia
Orduan da hasico,
Edo bethi ifernuan
Tormenten pairatzeco,
Edo bethi descaxuan
Ceruaz goçatzeco. (*bis.*)

BAKETIARRAREN ETA MENDECARIAREN

ARTEAN IHARDUKIA.

Aire huntan : *Avec les jeux dans le village.*

BAKETIARRAC.

Yesu Christoc daucu manatzen
Exaiari barkhatzea,

Eta non ez dugun barkhatzen,
Segur dugu damnatzea.
Haren exai cen guciari
Barkhatzen hasi da bera ;
Obedi çogun legueari,
Maithatuz gure exaia. (*bis.*)

MEDECARIAC.

Manu gogor, legue dorphea !
Ez othe cen bada aski
Ongui eguilen maithatzea ?
Certaco du iratchiki
Orobat gaizki eguileac
Behar direla maithatu,
Eta gure cehatzailleac
Ordainez ongui tratatu ? (*bis.*)

BAKETIARRAC.

Oroc gorphutz bat eiten dugu,
Yesu Christo buruçagui,
Ceru bera aguindu çaicu
Hemen elkhar maitha sari :
Manu ezti, legue maitea !
Çuc deraucuçu ekharri
Lurrerat ceruco bakea,
Bihotz gucien lotgarri. (*bis.*)

MEDECARIAC.

Gutien ustean ene exaiac
Niri hambat axecabe,
Eta nic malxoki guciac
Sofri, mendecatu gabe ?
Ez dut odol hain pairatua ;
Halacoei nic barkhaturic
Ez da dostatuco mundua,
Ez daut eguinen hurriric. (*bis.*)

BAKETIARRAC.

Phisaçac hau, mendecaria ;
Huna cer çayan guerthatzen ;
Exaia cehatu nahia,
Hire bihotza duc çaurtzen ;
Cer pena, cer nekhe, cer gudu
Ez dituc hire barnean
Ondicoz ardura frogatu,
Herran bici haizenean? (*bis.*)

MENDECARIAC.

Ez bada cilhegui gaizkiac,
Mendecatuz, bihurtzea,
Halaber nekhe da exaiac
Bihotzetie maithatzea :
Ez dut exaiantzat herrarie ;
Bainan, ez ongui, ez gaizki
Halaco yendekin garabic
Ez dut nahi iharduki. (*bis.*)

BAKETIARRAC.

Molde horretan barkhatzea
Ez da aski salbatzeco ;
Eguiazeco caritatea
Hedatzen da urrunago ;
Gaizkiaren ordain onguia
Bihurtzea du manatzen :
Yaunaren misericordia
Ein ahalaz imitatzen. (*bis.*)

BAKETIARRAC.

Oihuz Aita cerucoari
Gauzeco, barkha detzagula
Gure huxac, guc exaiari
Barkhatzen tugun beçala

Mendecariac, othoitz hori
Eguiten duen gucian,
Galdetzen dio Yaincoari
Yaçar deçon ber-aldian. (*bis.*)

BAKETIARRAC.

Yesusec Aita du othoiztu
Bere azken orenetan,
Gurutze batean itzatu
Çuten beren fagoretan :
Nore atchic deçake herraric
Exemplu hunen ondoan ?
Hitz amulxu hec adituric,
Nola bici exaicoan. (*bis.*)

MENDECARIAC.

Yesus exemplutzat harturic,
Egun beretic naiz hasten,
Bihotzetic herra khenduric,
Ene exaien maithatzen :
Ofenxatu nauten guciac
Maiteki tut besarcätzen,
Eguin dauzkidaten gaizkiac
Behin bethicotz ahantzten. (*bis.*)

GUCIEC ELKHARREKIN.

Othoitz deçagun Yaungoicoa
Arren gure bihotzetan
Caritate eguiazcoa
Seculacotz finca deçan ;
Hemendic ilkhi beçain sarri,
Sargaiten, balxa handian,
Hemen elkhar maithatze sari
Aguindu çaicun lorian. (*bis.*)



LAUDA, SION,

Latinaren airean.

Sion, Salbatzaille ona,
Guidari eta artzaina
Lauda çaqu copletan.

Ez guphidex, ein ahala,
Ceren ezin azki lauda
Baiditeke seculan.

Laudorio, guciz egun, daigun
Bicia emaiten daucun
Ogui biciarentzat.

Hauche baitcen, azken afarian
Hamabi haurridei eman
Eguiazki yaterat.

Lauda deçagun haltoki,
Aguer dadin publicoki
Gure bozcarioa.

Egun hunekin, lehen aldicotz
Mahain hau hedatu celacotz
Daigu memoria.

Legue berrico Bazcoa,
Khenduric lehenecoa,
Mahain hortan eguin cen.

Çaharra du berriac,
Itzala du eguiac,
Arguiac gaua khentzen.

Yaunac utzi du ordena,
Berac obratu çuena
Aphezec ein deçaten.

Haren ganic ikhasia,
Arnoa eta oguia
Ditugu consecratzen.

Oguia da gorphutzerat,
Bai arnoa odolerat
Eguiazki aldatzen.

Ikhus, asma ez daitena,
Gauça mirextecoena
Fedeaç du fincatzen.

Itchuru beren azpian,
Eguiten da sustantzian
Aldamen gucizcoa.

Mudantza eguin denean,
Edo cein itchuren-pean
Yainco bat da osoa.

Hartzailleac ez du hauten,
Ez çathitzen, ez chehatzen;
Osoric du irexten.

Batec har, ala har millec,
Bat hartzen dute guciec,
Ez da nihoiz ez-deusten.

Gaichtaguinac hartzen badu,
Oyac beçambat hartzen du,
Bainan bere caltetan.

Herioa du causitzen
Yustuentzat bicia den
Ithurburu berean.

Hostia hauxiric ere,
Ez dudaric ein batere
Hambat dela çathi hartan
Nola baita osoan.

Ez da deusic erdizcatzen,
Seinale choila da hauxten,
Sustantzia da guelditzen
Cer ere baitcen lehen.

Aingueruen oguia da
Eguin bideranten bazca,

Eguiaz haurren oguia,
Ez oren yanharria.

Aguertu ciren figurac ;
Hetaric ciren Isaac,
Bildox bazcoz yaten cena,
Eta ceruco mana.

Yesus, artzain on, gure ogui,
Çuc gaitutçun urricari ;
Çain gaitzatçu eta bazca,
Çure onthasunez goça
Gaiten ceruan bethi.

Guciz çuhur, botherexu,
Çuc hemen hazten gaitutçu ;
Hanere mahain berean,
Çure sainduen artean
Othoi eçar gaitzatçu.

IFERNUAZ.

Aire çaharrean.

GALDEA.

Creatura damnatua,
Cere hauen tormentatzen,
Cer den hire ifernua,
Hire penac cer diren
Erraguc, erraguc ;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ecín erran dirot hitzez
Cembat dudan sofritzen ;

Ene dolore borthitzez
Hasten banintz mintzatzen,
Flacoac, flacoac
Litezke termioac.

GALDEA.

Ez badeçakec esplica
Cembat duan pairatzen,
Sentitzen duan beçala
Erdizcache bederen
Erraguc, erraguc ;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ene çorigaitzac ez du
Helas! bertze neuririe
Yainco guciz botherexu
Baten colera baicic;
Bethicotz dohaxu
Içan nintekelarie.

GALDEA.

Hire pena certan datza,
Cerc darozkie cilhatzen
Arima eta gorphutza?
Has hadi esplicatzen:
Erraguc, erraguc,
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Gorphutzac eta arimac
Ditu bethi erretzen
Su miracuilluzcoenac,
Bainan ez conxumitzen:
Sua dugu hemen
Yaten eta edaten.

GALDEA.

Su latzgarri horren kharrac
Cembat iraun behar du?
Clement horren indarrac
Noiz behardu yabaldu?
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ez diro deusec iraungui

Behin phiztu denean;
Iraun beharco du bethi,
Bethi indar berean,
Yaunaren colerac
Buhatzen duen suac.

GALDEA.

Cer lekhu den ifernua,
Cer duan hor ikhusten,
Nortaz haizen lagundua,
Nore duen hor manatzen
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Ifernua da lece bat,
Satanen erresuma;
Yaunac aurthiki du hunat
Gaitz gucien bilduma;
Monstro beltzie baicen
Ez da hemen ikhusten.

GALDEA.

Hire pena gucietan
Cein da latzgarriena,
Guebienic hire baithan
Afliyitzen hauena?
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

IHARDEXTEA.

Orhoitzean ene faltaz
Gabetua naizela
Bethicotz ene Yaincoaz,
Errabian beçala

Dolorez, chagrinez
Yartzen naiz, haren minez.

GALDEA.

Certaco haiz hi orhoitzen
Galdu duan Yaincoaz ?
Cergatic ez duc exitzen
Haren amodioaz ?
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

I HARDEXTEA.

Higuintzera bortchatua
Naizen Yaincoa gana
Ez dakit cerc, hertchatua,
Instant oroz narama,
Bethi bereganic
Khasatzen nauelaric.

GALDEA.

Nola duan merecitu
Yaincoaren colera,
Ceren gatic condenatu
Hauen supliciora
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

I HARDEXTEA.

Dela madaricatua
Sorthu ninteen eguna,
Eta lehen bekhatua
Eguin içan nuena :
Crima harc ondicoz
Galdu nau seculacotz.

GALDEA.

Bekhatu mortal bakhar bat
Aski bada galtzeco,
Millaca ein tuztenentzat
Cer pena othe dago?
Erraguc, erraguc;
Arguitu nahi gaituc.

I HARDEXTEA.

Gaztiguen hedadura
Gaichtoec, lece huntan,
Bere crimen credura
Beharco tuzte yasan
Fin gabeco penac,
Ez ordean bardinac.

I HARDEXTEA.

Bekhatu mortalarekin
Yuntatua denean,
Hux benial batec berdin
Içanen du leccan
Pena eternala,
Hux mortalac beçala.

I HARDEXTEA.

Barkhatuac içan diren
Bekhatu beren pena,
Demboran complitu ez den
Penitentzia hura
Ez daite secular
Akhaba ifernuan.

I HARDEXTEA.

Demboran hain urricari

Ditu guiçon flacoac	Ordean, ordean
Yustu beçain miragarri	Ez eternitatean.
Aguertzen den Yaincoac;	

AINGUERUEZ ETA HEKIEN GANIC HELDU

ÇAIZKIGUN FAGORE BICIEZ.

Aire hunen gainean : *Troupe innocente.*

Aingueru tropac	Labe gorian
Cituen creatu	Eçarri cituzten
Yaungoico onac,	Haurren erdian
Eta destinatu	Ikhusi içan cen
Gure guidatzeco,	Yauxia laberat,
Eta beiratzeco	Haurren beiratzerat,
Ceruraco bidean,	Yaunaren ainguerua,
Exaien artean,	Apartatuz sua
Aingueru tropac.	Labe gorian.

Loth yustuari	Lehoin goseac
Betan bi aingueru	Cituzten ikhusi
Hain dohaxuki	Hain herabeac,
Citzaizcon aguertu,	Ez nahiz ausiki
Escutic harturic,	Daniel yustua,
Sodomaco-sutic,	Ceren ainguerua
Salboan eçartzerat	Harekin baitcen yauxi,
Eta guidatzerat,	Eta malxaraçi
Loth yustuari.	Lehoin goseac.

Yacob sainduac	Arcanyelu bat
Ein cituenean	Ama Biryinaren
Lehen pausuac,	Salutatzerat
Berritan bidean	Cerutic yauxi cen,
Cituen causitu	Emanic berria
Eta eçagutu	Mundurats mesia
Aingueru guidariac,	Ceraucula ekhartzen,
Bidera yauxiac,	Sinhexten baçuen
Yacob sainduac.	Arcanyelu bat.

Yoseph yustua
Aingueru on batez
Abisatua
Nola cen Herodes
Colera handian,
Gauaren erdian
Ama semez cargatu,
Eta cen partitu
Yoseph yustua.

Yesu Christori
Hiltzeco menean,
Cenean yarri
Baratze batean
Odolez icerdi,
Citçaion ethorri.
Cerutic aingueru bat,
Curaie emaiterat
Yesu-Christori.

Presondeguitie,
Gathez cargatua
Çagoen lekhutic
Arthoski çaindua
Aingueru batec-du
Piarres libratu,
Haren gatheac hauxi,
Eta ilkhi-araci
Presondeguitie.

Edo cein orduz,
Ixas, leihorretan,
Ecin gaihenduz
Irriscu handitan,
Loxatzetic urrun,
Bozie segui çagun
Yaunaren ainguerua,
Gure sustengua
Edo cein orduz.

Satan gaichtoa
Oldartzen baçaicu,
Bihotz flacoa
Beharrez garhaitu,
Bethi har detzagun
Aingueruac lagun;
Holaco lagunekin
Laster da deseguin
Satan gaichtoa.

Mandu sothilla,
Gu beretu nahiz,
Aguer dadilla
Content eta hirriz;
Gure beiraterat
Aingueru tropa bat
Da cerutic yauxico,
Eta bentzutuco
Mundu sothilla.

Bethi gurekin
Badago yosia
Liphizta cikhin
Arimen exaia;
Haren asalduac
Gure aingueruac
Alfer ditu bihurtzen,
Eta guduçatzen
Bethi gurekin.

Ceruan ere,
Bethi aingueruac
Gure fagore
Dire alchatuac;
Othoitzac, amoinac
Eta obra onac
Ez dire ofreitzen
Haukin ezcuz baicen
Ceruan ere.

Esker handiae
Çor çaiçco Yaunari,
Haren graciac
Baiditu eçarri
Aingueruae beilan

Gure ingurutan ;
Halaber aintzindari
Eman daucunari
Esker handiac.



AURKHITEGUIA.



		PAG.
Cantica Izpiritualac		I
Abisua		V
Amanda onorablea		VII
I Cantica. Izpiritu Sainduaren laguntzac gal-		
detzeco		1
II — Laguntza beren galdea		2
III — Yaincoaren legue saindua		3
IV — Munduaren arbuioaz		4
V — Munduco gaucen ezdeustasunaz		5
VI — Inocentzian denaren çoriona		6
VII — Bathaioco graciaren gainean		7
VIII — Yaincoa ganat itzultzen da bekha-		
torea		8
IX — Yaiucoaren hamar manamenduac		10
X — Eliçaren manamenduac		12
XI — Yaincoaren eta lagunaren alderaco		
amodioa		13
XII — Lau azken finen gainean		14
XIII — Gauça beraz		15
XIV — Gauça beraz		16
XV — Heriotzearen orhoitzapenaz		18
XVI — Gurutzearen bistan bekhatorearen		
sentimenduac		19
XVII — Nola behar gaizcon Yesusi yarraiki		20
XVIII — Contzientziaren examina		21
XIX — Bekhatuaren urrikiaz		22
XX — Yaincoac deithzen du bekhatorea		
bere gana		23
XXI — Bekhatorea itzultzen da Yaincoa		
gana		24

	PAG.
XXII Cantica. Bekhatoarea nahi da conbertitu	25
XXIII — Bekhatoarea conbertitzen da	26
XXIV — Yesusen amodioaz eta ikhusminez sustatua den bihotzaren haxgora- penac	27
XXV — Bekhatoarearen bozcarioa Yaincoa ganat bihurtzean	28
XXVI — Creaturen conxideracionea gure bihotzac Yaincoa ganat alchatzeco	29
XXVII — Eskerren bihurtzeco	30
XXVIII — Aldareco sacramendu sainduaren gainean	31
XXIX — Meçaco sacrificioaren gainean	32
XXX — Sacramendu sainduaren ohoretan	34
XXXI — Yaun handia adoratzeco	35
XXXII — Sacramendu sainduaren adoratzeco	35
XXXIII — Sacramendu sainduaren benedicio- nea emaitan	36
XXXIV — Comunione sainduraco amodiozco deihac	36
XXXV — Comunionearen ondoco santa The- resaren bozcariozco eskerrac	38
XXXVI — Purgatorioaz	40
XXXVII — Yesusen bihotz samurrari othoitza	41
XXXVIII — Yesusen bihotz sacratuaren ohore- tan	42
XXXIX — Yesusen bihotz sacratuaren alderaco sentimenduac	43
XL — Bihotzeco garbitasunaz	45
XLI — Medisentziaz	46
XLII — Misione edo erretretetaco demboran	47
Predicuetaco Ave Maria	48
Arrosarioco hamabortz misterioac	49
NOELAC. — I Noela	52
II Noela	53
III Noela	54
IV Noela	54
V Noela	55

VI	Noela	56
VII	Noela	58
VIII	Noela	59
IX	Noela	60
X	Noela	61
XI	Noela	62
XII	Noela	64
	Vexilla Regis escuaraz	65
	Forti tegente brachio escuaraz	66
	XIII. — Yesusen phiztearen gainean	67
	Munduari adios	68
	Predicu aitzinean	70
	Predicu ondoan	71
	Hamalau estacionetaco gurutze sainduari hamabortz pherxu	71
	Munduco gaucen funxgabetasuna	73
	Andredena Magdalena eta mundutarraren arteco solhasa	75
	Bathaioco abantailac eta aguintzac	76
	Comunioneco actac	78
	Gazte-danic prestu içaittearen gainean	79
	Yuiamendu yeneralaz	83
	Bekhatorearen çortheaz	86
	Hil behar naiz eta yuiatua içan	87
	Damnatuen auhenac ifernuan	89
	Dohaxuen ceruco goçoaz	91
	Munduco lanyerac	93
	Bekhatorea itzultzen da Yaincoa ganat, hirurgen ^{en} cantica	94
	Berthute printzipalen actac	95
	Yaunaren othoitza	96
	Apostoluen symbola	97
	Baketiarraren eta mendecariaren artean ihardukia	99
	Lauda, Sion escuaraz	103
	Ifernuaz bigarren cantica	104
	Aingueruez eta hekien ganic heldu çaizkigun fagore bereciez	107



